

Tolosako Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana.



TOLOSAKO
UDALA

Aldaketarako klíma berri bat

factor CO₂
ideas



2013ko Martxo



Esker onak

Aldaketarako klíma berri bat

Udalaren aldetik parte hartu dute:



TOLOSAKO
UDALA

- Iñigo Muñoz
- Hasier de los Ríos
- Antton Lekuona
- Jose Mari Otaegi
- Luis Mari Laso

Tolosaldea Mankomunitatea

Euskal Energia Erakundetik honako pertsonak hartu dute parte:



EVE Ente Vasco
de la Energía

- Natalia Díaz
- Iñaki García

Factor CO₂-ren aldetik honako prestonek hartu dute parte:



- Itxaso Gómez
- María Jesús Muñoz
- Kepa Solaun
- Asier Sopelana
- Iria Flavia Peñalva
- Sandra Valdueza
- Naiara Etxepeteleku
- Begoña Benito
- Sergi Bosque
- Zaloa Ares

EDE ingeniariak taldearen eskutik honako pertsonak hartu dute parte:



- Mariano Sánchez
- Javier Reche
- Amaia Bilbao
- Estíbaliz Inchaurre

Aurkibidea

Aurkibide nagusia

1.	Sarrera	6
2.	Sintesia	9
3.	Hasierako dokumentazioaren analisia.	14
3.	2006-2009 urteetako kontsumo energetikoak	18
3.1.	Tolosako kontsumo energetiko globala	18
3.2.	Udalerriko arlo desberdinen kontsumoak	19
3.2.1.	Bizitegiak	19
3.2.2.	Zerbitzuak	19
3.2.3.	Mugikortasuna	20
3.2.4.	Hondakinak	20
3.3.	Udaletxeko kontsumo energetikoak	21
4.	2006-2009 urteetako NEG isurpenen inbentarioak	22
4.1.	Tolosako NEG isurpenen inbentario globala	22
4.2.1.	Bizitegiak	24
4.2.2.	Zerbitzuak	25
4.2.3.	Mugikortasuna	26
4.2.4.	Hondakinak	26
4.3.	Udaletxeko NEG inbentarioa	27
5.	Lurraren erabilera eta Lur-erabilera sektorearen NEG isurpen inbentarioa.	29
5.1.	Orokortasunak.	29
5.1.1.	Lurraren erabilera desberdin bakoitzarentzaren azaleraren identifikazioa	29
5.1.2.	Erabilpen berdina izaten jarraitzen duten eta erabileraz aldatzen duten lur eremuen identifikazioa.	30
5.1.3.	Eskualde klimatiko eta lurzoru motaren identifikazioa.	30

5.1.4.	Karbono stock-aren aldakuntzen estimazioa.	31
5.2.	Ikerketa eremua: eremu fisikoa eta ezaugarri klimatologiko eta edafologikoak.	31
5.3.	Tolosako "Lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketa" sektorearen negutegi efektuko gasen xurgapen eta isurpen inbentarioa.	32
5.4.	Tolosako udalerriko karbono stock-aren aldakuntzen estimazioak.	33
5.5.	Ondorioak.	34
6.	Isurpen proiektzioak. Joera eszenatokia 2020 urterako	35
6.1.	Energia kontsumo eta negutegi efektuko gas isurpen globalak. 2020rako joera eszenatokia.	35
6.2.	Alor desberdinen energia kontsumo eta negutegi efektuko gasen isurpenak. 2020rako joera eszenatokia.	38
6.2.1.	Bizitegiak	38
6.2.2.	Zerbitzuak	39
6.2.3.	Mugikortasuna	40
6.2.4.	Hondakinak	41
7.	Estrategia	42
8.	Tolosako EIEParen neurriak	45
8.1.	Alorra: Udala	48
8.2.	Alorra: bizitegiak	81
8.3.	Alorra: zerbitzuak	103
8.4.	Neurrien jarraipenerako adierazleen laburpena	108
9.	Tolosako EIEP eszenatokia	113

Taulen aurkibidea

Taula 1: EIEPan bildutako neurrien laburpen taula. _____	11
Taula 2: Azken urteotan Tolosan martxan jarritako ekintzen laburpen taula. _____	14
Taula 3: Tolosako kontsumoen bilakaera, alor desberdinetan (2006-2009). _____	18
Taula 4: Tolosako kontsumoen bilakaera, erabilitako energia iturriaren arabera (2006-2009). _____	19
Taula 5: Bizitegi alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009). _____	19
Taula 6: Zerbitzu alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009). _____	20
Taula 7: Mugikortasun alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009). _____	20
Taula 8: Hondakin alorraren sortutako hondakin kantitate eta mota (2006-2009). _____	20
Taula 9: Udaletzeko kontsumo energetikoak (2007-2008). _____	21
Taula 10: Tolosako NEG inbentarioaren bilakaera (2006-2009). _____	22
Taula 11: Tolosako NEG inbentarioaren bilakaera, erabilitako energia-iturriaren arabera (2006-2009). _____	23
Taula 12: Bizitegi alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009). _____	25
Taula 13: Zerbitzu alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009). _____	25
Taula 14: Mugikortasun alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009). _____	26
Taula 15: Hondakin alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009). _____	26
Taula 16: Udaletzeko NEGen isurpenak udal atal desberdinen arabera (2007-2008) _____	27
Taula 17: 2000 eta 2006 urteetako lur-erabilpen matrizea. Iturria: Lanketa propioa. _____	32
Taula 18: 2000 eta 2006 urteetako lur-erabilpen matrizea. Iturria: Lanketa propioa. _____	33
Taula 19: ildo estrategiko bakoitzean identifikaturiko ekintza-lerro potentzialak. _____	43
Taula 20: Alor ezberdinetan bildutako neurriak, hauen isurpenak eta aurrekontuak. _____	44
Taula 21: NEG inbentarioa lantzeko adierazle orokorrak udalerrian. _____	108
Taula 22: NEG inbentarioa lantzeko adierazle orokorrak Udalan. _____	109
Taula 23: Neurrien banan banako jarraipena burutzeko adierazle espezifikoaren laburpen taula. _____	110

Irudien aurkibidea

Irudia 1: Lur-erabilpenaren kategoria desberdinak IPCCaren metodologiaren arabera. _____	30
Irudia 2: Lurzoru mota desberdinak. _____	31
Irudia 3: Tolosako udalerraren ortofotoez osotutako irudia. (Tolosako Kartografia). _____	32
Irudia 4: Tolosako lur-erabilpenak 2006 urtean IPCCaren kategorien arabera. _____	33
Irudia 5: Tolosako EIEPeko ildo estrategikoak. _____	46

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1: Tolosako NEG isurpenen (tCO ₂ b) banaketa alor desberdinetan, 2007 urtea.	23
Grafikoa 2: Tolosako NEGen iturriak 2007 urterako.	24
Grafikoa 3: Tolosako Udaletxeko isurpenen banaketa 2007 urtean.	27
Grafikoa 4: Tolosako Udaletxeko isurpenen iturria 2007 urtean.	28
Grafikoa 5: Analisisian kontuan harturik alor desberdin guztien kontsumo bilakaera.	36
Grafikoa 6: Tolosa udalerriko NEG isurpen globalen bilakaera.	36
Grafikoa 7: Tolosako per capita kontsumoen bilakaera.	37
Grafikoa 8: Tolosako per capita erakutsitako NEG isurpenen bilakaera.	37
Grafikoa 9: Tolosako joera eszenatokiko bizitegien kontsumoaren bilakaera.	38
Grafikoa 10: Tolosako joera eszenatokiko bizitegien NEG isurpenen bilakaera.	38
Grafikoa 11: Tolosako joera eszenatokiko zerbitzuen kontsumoaren bilakaera.	39
Grafikoa 12: Tolosako joera eszenatokiko zerbitzuen NEG isurpenen bilakaera.	39
Grafikoa 13: Tolosako joera eszenatokiko mugikortasunari loturiko kontsumoaren bilakaera.	40
Grafikoa 14: Tolosako joera eszenatokiko mugikortasunari loturiko NEG isurpenen bilakaera.	40
Grafikoa 15: Tolosako joera eszenatokiko hondakinen ekoizpenaren bilakaera.	41
Grafikoa 16: Tolosako joera eszenatokiko hondakinei loturiko NEG isurpenen bilakaera.	41
Grafikoa 17: Ildo estrategiko bakoitzaren garrantzia identifikatutako hiru alorretan.	44
Grafikoa 18: Aurreikusitako bilakaera tendentziala, EIEP eszenatokiko bilakaera tendentzialarekin eta 2007ko eszenatokiarekin alderatuta.	113
Grafikoa 19: Ildo estrategiko desberdinen arabera, 2020 urterako, EIEP eszenatokiaren isurpen murrizpen portzentaiak.	114
Grafikoa 20: Alor desberdinen arabera, 2020 urterako, EIEP eszenatokiaren isurpen murrizpen portzentaiak.	115

1. Sarrera

Klima aldaketa mundu mailan batzbesteko tenperaturaren emendio eta klimaren ezegonkortasunari loturiko fenomeno da, jadanik atzera bueltaezinak diren ondorioak ekosistema guztietan ikusgarri bilakatu dira.

Gizakia izan da berokuntza globalaren eragile nagusia, izan ere iraultza industrialetik hona atmosferara isuritako negutegi efektuko gasen kontzentrazioaren emendia gizakiak aurrera eramandako ekintzen ondorioz gertatu da, erregai fosilen errekuntza, baso-soiltzeak, hondakinen pilaketa eta kudeaketa desegokiak, nekazaritza prozesu intentsiboak edota prozesu industrial eta kimikoek sortuak.

KEZKA OROKORRA

Klima aldaketaren inguruan mundu mailan sortutako kezkak nazioartean hainbat adituk fenomeno honen eragileak ikertzera bultzatu du. Aipatzekoa da, azterketa-lan moduan, *Klima Aldaketarako Nazioarteko Gobernu Arteko Panelak* (IPCC ingelesez) 2007an aurkezturiko Laugarren Ebaluazio Txostena, zeinetan Europan jadanik emandako tenperaturaren igoeraren berri ematen zuen (0,6°C eta 1 °C artean). Txosten honetan gainera, mundu tenperatura 1,8°C eta 4°C artean emendatuko dela aurreikusi zuen (Europan 2°C-6,3°C-ko igoera aurreikusten zuten)

Klima aldaketak esparru desberdinetan eragingo du:

- Lurreko altitude txikiko eremuak eta kostaldetik gertu daudenak, lur-eremuen atzerakada prozesua pairatuko dute itsas mailaren emendioarengatik.
- Glaziarren azalera izugarri murriztuko da, gaur egun baieztatu den moduan.
- Animalia, zein pertsonen migrazioak emendatu egin dira baliabide naturalen eskasiagatik. Landareen kasuan ere desplazamendu altitudinal eta latitudinalak behatzen hasi dira.

EKINTZA POLITIKOAK

Klima aldaketaren inguruko kezka hau gai saihestezina bilakatu da nazioarteko politiketan. Honen ondorioz, maila desberdinetako administrazioak klima aldaketa aztergai bihurtu dute euren estrategia, plan, ingurumen politika eta tokiko ekintza desberdinetan, zeinak helburu bezala fenomeno honen ondorioan pairatu eta aurka borrokatzea ezarri duten.

Jarraian, azken urteotan mundu nahiz tokiko mailan aurrera eramandako politika nagusiak laburbiltzen dira:

Klima Aldaketaren inguruko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa (KANBEK). 1992an sortu zen nazioarteko itun hau eta 192 herrialdeek sinatu zuten, klima aldaketaren aurka borrokatzeko helburuak eta oinarriak ezarriz.

Kiotoko protokoloa: KANBEK-etik eratorria eta 2005ean martxan jarria, klima aldaketaren aurkako munduko konpromiso handiena izan da. Mundu mailako isurketen murrizpen helburua ezartzen du: %5,2koa 2008-2012 denboraldiko.

Klima Aldaketako aurre egiteko Europako Programa (PECC): Klima Aldaketako lehen Europar Programaren Esparruan, Europako emisio-eskubideen merkatua sortu zen (EU-ETS).

Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia: 2007an sortu zen Europatik ezarritako NEGen murrizketa helburuak lortzeko.

Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012: 2008an onartua, EAeko emisioen areagotzea %4kora mugatzeko ekintza ugari ezartzen ditu 2008-2012 denboraldirako 1990. urtea erreferentzia urte bezala harturik.

Klimaren aldeko Espainiako Hirien Sarea: Bere helburua Espainiak hiri eta herrietan iraunkortasun politikak sustatzea da, bereziki NEGen murrizketarekin erlazionaturikoak.

UDALSAREA 21 (Iraunkortasunerako Udalerrien Sarea). Klima aldaketaren inguruko lantalde espezifikoen sorrera sustatu ditu (Ekitaldiak eta Auzolanak), non tokiko mailan klima aldaketaren aurkako politikak martxan jartzeko helburua duten erremintak garatu diren.

Europako Alkateen Ituna: Alkateen Itunaren helburu nagusia atxikitzen diren herrialdek Europar Batasunaren politika energetikoaren helburutatik haratago doazen klima-aldaketaren inguruko planen garapena eragitea da, emisioen murrizketa kontuetan erreparatuz (%20).

KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZAK

Tolosari dagokionez, jasangarritasun bidean lanean aritu da azken urteotan. Honen adibide dira 2003 eta 2009 urtean argitaratutako Tolosako lehen eta bigarren Ekintza Plana, 2004 urtean aurkeztutako Mugikortasun Plana (2010ean bigarrena aurkeztu zen) eta 2009ko Klima Aldaketaren Aurkako Ekintza Programa esaterako.

2002 urtetik, gainera, Tolosa Udalsareako kide bihurtu zen, bere baitan Klima aldaketaren Aurkako Ordenantza eta Ekintza Planen Berrikuspena burutuz. Are gehiago, Ekintza Planaren ildoan TOLOSA15 ekimena sortu zen, zeinak herritarren partaidetza sustatu eta udal departamentuen arteko transbertsalitatea bultzatzea ditu helburu.


Azken ekintza bezala, 2011ko Martxoaren 28an Tolosako alkate ohia, Jokin Bidarraitz, sinatutako Alkateen Ituna legoke. Itun honen bidez, Tolosako udala herriko NEG isurpenak 2020 urterako, oinarri urte baterik, gutxienez %20an murrizteko konpromisoa hartu du. Honako dokumentua, konpromiso hori betetzeko jarraitu beharreko gidalerroak proposatzen ditu.

2. Sintesia

Tolosako Energia Iraunkorretako Ekintza Plana (aurrerantzean EIEP) garatzeko ezinbestekoa izan da, lehenik eta behin, oinarri urtea zehaztea, hots, abiapuntuko eszenatokia ezagutzea. Izan ere, oinarri urte honetatik aurrera martxan jarritako NEG isurpen murrizpenak eragiten dituzten, edo nolana, hauen murrizpena sustatzen dituzten ekintza eta ekimen guztiak EIEParen gidalerroak osatuko dituzte. Neurri hauen artean udalak jadanik gauzatutako ekintzak egongo dira barneratuta, udaletik azken urteetan jarraitutako politika iraunkorrak NEG terminoetara itzuli eta kontutan izatearren. Bestelako, neurri guztiak zehazteko udal teknikari eta zinegotziek, kanpo-laguntza teknikoarekin batera, eta Euskal Energia erakundearen aholkuekin, hainbat hausnarketa bilera burutu behar izan dira Itunaren konpromisoa betetzea baimenduko duten 60 neurriak erabakitzeke.

Oinarri urtea zehazteko azken urteetako (2006-2009) NEG isurpen inbentarioak garatu eta aztertu dira. Honela, Udaletxeak, 2007 urtea aukeratu du oinarri urte moduan, krisiak eraginik izan ez duen azken urtea izanik, udalerriko joeraren hurbileneko isla izan delakoan. Urte honetako Tolosako NEG isurpenak 83.984 tona CO₂ baliokide izan ziren, biztanleko 4,70 tCO₂b, hain zuzen.


EIEPean bildutako neurriek eragindako NEG murrizpen guztietatik, %63a Udal alorrari dagokio. Neurri hauen artean esanguratsuenak, hondakinen kudeaketa sistemaren aldaketa, ur-hornidura sarearen berrikuntza, kanpo argiteriaren aldaketa eta polikiroldegiko birsorkuntza sistemaren ezarpena dira.



Bizitegien alorrean bildutako neurriek, bestalde, NEG isurpen murrizpen neurri guztien %33a osatzen dute, hondakinen sorreraren murrizpen, udal ibilgailu flotaren berrikuntza, etxebizitza berrietan irizpide bioklimatikoak kontuan hartu eta egungo etxebizitzetako etxetresnak eta kontsumitutako erregaia aldatzeagatik bereziki.

Azkenik, zerbitzuen alorrean NEG isurpen murrizpenen %4a lortzen da zerbitzu lokaletan proposaturiko berrikuntza energetikoen gauzatzeagatik.

Alkateen Itunaren gidalerroak jarraituz, neurriak alorretan banatzeaz gain, ildo estrategikoetan antolatu dira. Honela, lortutako emaitzak adierazten dutenez, NEG isurpen gehienak Hondakinen ildoan lortuko dira, murrizpenen %46a bilduz, eta jarraian energia eraginkortasuna eta mugikortasun ildoak kokatuko lirateke, hurrenez hurren, murrizpenen %27a eta %11a lortuz. Honako hiru ildoek EIEParekin aurreikusitako murrizpenen %75a betetzen dituzte, beraz ildo lehentasunezko estrategiko hartu dira.



Tolosako EIEPean bildutako 60 ekintzek 2020 urtean NEG isurpenak %23,5ean murriztea eragingo dute, beraz, plan honek, Tolosako Udalerria Alkateen helburuetatik haratago iristera baimenduko du. Ondorengo orrialdeetan agertzen den taulan 60 neurri hauek laburbilduta azaltzen dira, haiekin lortutako energia eta NEG isurpen murrizpena, estimatutako kostua, aurrezpena eta berreskuratze tasa agertzen direlarik.

Taula 1: EIEPan bildutako neurrien laburpen taula.

Alorrak eta energia-kontzeptuak	Ekinzak		Aurrezpen energetiko termikoa 2020 urtean (kWh)	Aurrezpen energetiko elektrikoa 2020 urtean (kWh)	Isurpenen murrizketa 2020 urtean (tCO ₂)	Isurpenak saihesteko potentziala (EIEP denboraldian)	Aurreikusitako kostua (€)	Aurrezpen ekonomikoa (€/urte)	BTS(Berreskuratze tasa sinplea)	Lehenasuna		
UDALA												
Energia eraginkortasuna	Eraikinen argiztapena	Balasto elektronikoen instalazioa Udaletxean, Musika Eskolan, Kultur etxea, Zerkausia, Polikiroldegia eta Liburutegian.	1		58.704	24,01	144	47.515	7,045	4	2	
		Pizte eta itzalzte automatizazioa Udaletxean eta Kultur etxean.	2		14.530	5,94	36	11.161	1.593	7	4	
		Fluxu erregulatzailea instalatzea Udaletxean.	3		18.162	7,43	45	13.690	2.507	5	4	
		Gainbegiratze energetiko Udaletxean.	4		3.639	1,49	9	3.203	437	5	3	
		Presentzi detektoreen instalazioa Musika eskolan, Polikiroldegian	5		21.067	8,62	52	6.212	2.827	2	3	
		Lanpara inkandeszenteak, kontsumo baxuko lanparrangatik aldatu Kultur Etxean	6		4.361	1,78	11	448	747	1	2	
		Argiteriaren itzalzte automatikoa kultur etxea ibita dagoenean.	7		1.363	0,56	2	300	157	2	3	
		Igogailuko argiztapena erregulatu, erabilpenaren araberako Kultur etxean.	8		552	0,23	1	500	95	5	4	
		Barne argiteria, argi naturalaren araberako erregulatuko duten sentsoreak instalatu Kultur etxean.	9		1.363	0,56	3	300	233	1	2	
		Pultsadore tenporizatuen instalazioa liburutegian.	10		5.989	2,45	15	600	1.036	2	2	
	Ekipoak	Polikiroldegiko ekipo elektrikoen itzaltea, erabilpenik ez dagoenean.	11		15.330	6,27	38	14.700	1.642	9	4	
	Berokuntza klimatizazio sistemen eraginkortasuna	Udaletxean, berokuntza gunea erregulatzea.	12		40.234	9,58	57	23.304	1.851	13	4	
		Galdara aldatu musika eskolan.	13		44.958	9,08	54	19.115	1.840	10	4	
		Galdaren erregailua doitu Musika Eskolan, Kultur etxean, Beotibar frontoian, Polikiroldegian eta Liburutegian.	14		144.706	29,23	175	0	4.956	0	2	
		Berokuntza sistemen sektorialazioa Kultur etxean.	15		23.515	4,75	29	1.000	1.066	1	2	
		Berogailu zaharrek, eraginkorragoak diren berriengatik aldatzea kultur etxean.	16		1.568	0,32	2	1.000	61	16	4	
		Termostato eta balbula termostatikoen instalazioa Kultur etxea eta liburutegian.	17		23.540	4,76	29	1.400	1.020	1	2	
		Itxuren hobetzea Liburutegian.	18		22.896	4,62	28	19.200	868	22	4	
		Beotibar frontoia leho zaharren berokuntza, kristal bikaltzekoak ipiniz eta inguruko arrotzeria berrituz	19		7.479	1,51	9	6.000	706	8	4	
		Beotibar frontoian, termostato baten instalazioa berokuntza erregulatzea.	20		17.201	3,47	21	500	565	1	2	
		Polikiroldegiko igerilekueetan beritzen den uraren energia termikoa aprobetxatu ur berrira berolteko.	21		120.304	24,30	146	7.000	4.081	2	1	
		Liburutegi eta polikiroldegiko gune desberdinen berokuntza eta klimatizazio tenperaturak doitu.	22		320.226	2.792	65,83	395	0	17.000	0	1
		Polikiroldegian, manta termikoa bat instalatu, gaueko galerak ekidiltzeko.	23		71.152	14,37	86	6.360	2.414	3	1	
		Liburutegiko zoru erradiatzailea sektoralizatu.	24		10.222	2,06	12	600	387	2	2	
		Usabal polikiroldegian, bisorkuntza motore baten instalazioa	25				287,84	2.878	300.000	56.028	5	2
		Kanpo argiteria	Kanpo luminarien aldaketa eta potentzia kontratatutaren aldaketa.	26		1.030.866	475,75	476	1.350.900	109.733	12	3
		Zerkausiko kanpo argiteriaren aldaketa	27		2.190	0,90	5	820	369	2	3	

Alorrak eta energia-kontzeptuak		Ekinzak	Aurrezpen energetiko térmikoa 2020 urtean (kWh)	Aurrezpen energetiko elektrikoa 2020 urtean (kWh)	Isurpenen murizketa 2020 urtean (tCO ₂)	Isurpenak saihesteko potentziala (EIEP denboraldian)	Aurreikusitako kostua (€)	Aurrezpen ekonomikoa (€/urte)	BTS (Berreskuratze tasa sinplea)	Lehentasuna		
UDALA												
Energia Berztagarriak	Energia Berztagarrien sustapena	Son Esteban eraikinean, gaur egungo berokuntza sistema aldatu biomasaoko galdara bat instalatuz.	28	53.498		21,88	109,42	98.080,00	3.777,79	25,96	4,00	
Mugikortasuna	Udal flota	Energia garbiak kontsumitzen dituzten ibilgailuak erosi (elektrikoak edo hibrido konektagarriak)	29	173.571		53,61	257,96	138.800	23133,80669	5,99987723	3	
Hondakinak	Hondakinen kudeaketa	Hiri hondakinen gaikako bilketa selektibaren ezarpena	30			5.193,99	47.082,24	1.046.878,61			2	
Ura	Hornidura sarea	Ur Hornidura sarearen berrikuntza	31			919,80	5,059	2.975.000,00	217.054,40	13,71	3	
	Prebentzioa	Euri-uraren ustiapena Samaniego Eskolan	32			5,51	71,66	0,00	1.300,84	0,00	4	
Inguru naturala		Udalerriko baso azaleraren emendioa	33			1180	7552	110279	Ez dagokio	0	1	
BIZITEGIAK												
Energia eraginkortasuna	Etxebizitzaren berztagarritasuna	Alderdi bioklimatikoak integratu eta bultzatu etxebizitzari berriak egiterakoan	34	870.669	1.042.470	602	3.012	99.630.000	166.279	599	3	
		Leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoizteko leihoak jarri eta inguruko arrotzeria berrituz.	35	885.841		179	895	4171.500	41900	100	4	
		Eraikuntzen kanpo egituren birgaitzea, material isolatzailea jarri.	36	797.392		161	805	834300	37717	22	3	
	Etxebizitzaren beragailu sistemen berztagarritasuna	Etxebizitzetan, kondentsazio galdarak instalatu.	37	797.220		161	805	1019700	37709	27	3	
		Etxebizitzetan, erregiaren aldaketa, gasoiletik gas naturalera.	38	0		351	1757	4173000	125120	33	3	
		Balbula termostatikoak ipini eradiadoreetan.	39	358.878		72	363	333840	16975	20	4	
		Barne tenperatura mugatu, udan ezingo da tenperatura 26°C-tik eta neguan 21°C baino altuagoa izan.	40	477.590		96	482	0	22590	0	1	
	Argiztapen eraginkorra	Kontsumo baxudun lanparen instalazioa.	41	298.494		122	611	236014	387	7	2	
	Etxebizitzako hornikuntza eta materialen eraginkortasuna	Tresna elektrikoak erosteko orduan, energia eraginkortasun itzipideak baimatu.	42	1.123.928	1.123.928	460	2304	5419336	2352	40	3	
	Jarduera egokien kanpainak bultzatzea	Energia zentzuzko erabilera eta eraginkortasunaren aldeko sentsibilizazio kanpainak.	43			ez dagokio	ez dagokio	0	ez dagokio	ez dagokio	2	
Energia Berztagarriak	Energia Berztagarrien sustapena	Plaka fotovoltaiko eta termikoen instalazioa emendatu etxebizitzetan	44	95.800	84.726,00	34,67	173,34	288.000,00	14.698,46	19,59	4	
Mugikortasuna	Udalerriko flotaren aldaketa sustatzea	Ibilgailu elektriko puru edota hibrido konektagarrien eskuratzeta	45	1.846.571		440,70	2203,49	6046056	254945,8847	23,71505626	3	
	Hiri mugikortasun Iraunkorra	Tolasako garraio publikoaren eskaintzaren hobekuntza	46	110.399		29	178	163168	29512	6	4	
		Aparkaleku publikoak eta kanpo aldeko aparkaleku erabilera sustatu	47	834.976		221	1105	119862	13318	9	3	
		Trafikoaren baretzea motorgabeko mugikortasuna sustatzeko	48	46.872		12	62	150000	6374	24	4	
		Oinezbusa, haurak motorgabeko garraiobideen bidez eskolara joatea sustatzea	49	39.122		11	105	0	9851	0	2	
		Bidegorri sarea handitu auzo berrietara	50	124.329		33	130	920000	16906	54	4	
		Oinezkoen ibilbideen hobekuntzak	51	128.515		34	184	150000	17476	9	4	
		Herriarrak sentsibilizatzeko kanpainak, mugikortasun jasangarria sustatzeko eta herria autoa gubixago erabiltzeko	52			ez dagokio	ez dagokio	ez dagokio	59400	ez dagokio	ez dagokio	3
		Gidatze eraginkorren inguruko ikastaroak	53	120.570		32	161	29208	16182	2	3	

Alorak eta energia-konzeptuak		Ekinzak		Aurrezpen energetiko térmikoa 2020 urtean (kWh)	Aurrezpen energetiko elektrikoa 2020 urtean (kWh)	Isurpenen murrizketa 2020 urtean (tCO ₂)	Isurpenak saihesteko potentziala (EIEP denboraldian)	Aurreikusitako kostua (€)	Aurrezpen ekonomikoa (€/urte)	BTS (Berreskuratze tasa sinplea)	Lehenasuna
BIZITEGIAK											
Hondakinak	Prebentzioa	Hondakinen murrizpena sustatzeko sentsibilizazio kanpainak	54			844	4315	0	0	0	1
Ura	Prebentzioa	Bizitegieta ura murriztearen aldeko sentsibilizazio kanpainen garapena	55			397,03	56718	26328	93691	0	1
ZERBITZUAK											
Energia eraginkortasuna	Berokuntza sistemen eraginkortasuna emendatze denda eta zerbitzuetan	Dendetan kontsumo eraginkorragoko argiztapena instalatu.	56	176.396		72	368	67520	21168	3	2
		Denda eta zerbitzu lokaletan, kondentsazio galdarak instalatu.	57	981.024		198	1009	352000	46402	8	3
		Leiho zaharren berokuntza, kristal bikoitzekoa leihoak jarri eta inguruko arazteria berrituz.	58	588.650		119	605	396.000	27.843	14	2
	Jarduera egokien kanpainak bultzatzea	Energia zentzuzko erabilera eta eraginkortasunaren aldeko sentsibilizazio kanpainak zerbitzu lokaletan.	59	ez dagokio	ez dagokio	ez dagokio	ez dagokio	6.600	ez dagokio	ez dagokio	1
Ura	Prebentzioa	Zerbitzuetan ura murriztearen aldeko sentsibilizazio kanpainen garapena	60			140	699	26328	38	0,80	1

GUZTIRA

Aurrezpen energetiko térmikoa 2020 urtean (kWh)	Aurrezpen energetiko elektrikoa 2020 urtean (kWh)	Isurpenen murrizketa 2020 urtean (tCO ₂)	Isurpenak saihesteko potentziala (EIEP denboraldian)	Aurreikusitako kostua (€)	Aurrezpen ekonomikoa (€/urte)
10.355.884	3.730.526	13.195	143.939	130.823.026 €	1.481.962 €

3. Hasierako dokumentazioaren analisia.

Tolosako Diagnosi egokia burutu ahal izateko beharrezkoa izan da tokiko politika eta plan guztiak bildu eta aztertzea. Udalerriak azken urteotan aurrera eramandako energia, ingurumen eta hondakin politikak ezagutzearren Udaletxean eskura egon den dokumentazio guztia berrikusi da. Honela, negutegi efektuko gasen murrizpena eragiten edo sustatzen duten neurriak aukeratu dira EIEPeko neurri moduan sartzeko.

Jarraian azaltzen den taulan NENGen murrizpenean laguntzen dituten eta Tolosa udalerriko dokumentazioatik hautatutako ekintzak laburbiltzen dira:

Taula 2: Azken urteotan Tolosan martxan jarritako ekintzen laburpen taula.

izenburua	Mota	Arloa	Identifikatutako ekintza	PAESean sartzeko neurriak
ENERGIA ERAGINKORTASUNA				
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Aldi zaharreko etxebizitzak hobetu eta berritzeko laguntzak.	Elementu sustatzailezat sartuko da.
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Alderdi bioklimatikoak integratu eta bultzatu etxebizitza berriak egiterakoan.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Udal baldintza plegu eta proiektuetan eraikuntza jasangariko irizpideak txertatu.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Etxebizitza libre eta hutsen merkaturia sustatu.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Behe-solairuko lokalak eta teilatupekoak moldatzeko ordenantza etxebizitza izateko.	Elementu sustatzailezat sartuko da.
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Erosketa publiko berdea sustatu.	Elementu sustatzailezat sartuko da.
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Udal eraikinetan energi azterketak egin.	Elementu sustatzailezat sartuko da.
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Udal eraikinetako energia sistemetan hobekuntzak egin, aurrezteko eta modu eraginkorren erabiltzeko.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Udal argiteria hobetu, kontsumo handiko eta eraginkortasun gutxiko farolak eta argiak ez erabiltzea.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Energia eraginkortasunari buruzko irizpideak txertatu eraikin guztietan (batik bat sustapen publikoetan) eta udal instalazio berrietan (adib.: kiroldegi berria).	
Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Energia eraginkortasunari buruzko irizpideak txertatu ekipo berriak erosteko edo obrak eta instalazioak esleitzeko.	Elementu sustatzailezat sartuko da.		

zenburua	Mota	Arloa	Identifikatutako ekintza	PAESean sartzeko neurriak
ENERGIA ERAGINKORTASUNA				
Auditoría energética ayuntamiento de Tolosa (Inergetika).	Auditoretza.	Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Balasto elektronikoen instalazioa Udaletxean.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Pizte eta itzaltze automatizazioa.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Fluxu erregulatzailea.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Gainbegiratze energetikoa.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Berokuntza guneka erregulatu.	
Análisis de las instalaciones de alumbrado público (Aranzadi).	Auditoretza.	Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Kanpo luminarien aldaketa eta potentzia kontratatuaren aldaketa	
Musika Eskolaren auditoretza energetikoa.	Auditoretza.	Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Komunetan, presentzi detektoreen instalazioa.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Erreaktantzia elektronikoen instalazioa.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Berogailuaren ordutegia birdoitu.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Galdararen erregailua aldatu.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Berokuntzaren banaketa zirkuitua aldatu.	
		Eraginkortasun energetikoa. Udala.	Galdararen kontrola aldatu, kontrol aurreratuago bat erabili eta berokuntza kurba birdoitzuz.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Eraginkortasun enérgétikoa. Zerbitzuak.	Merkataritzari lagundu beritze prozesuetan eta erosketako ohitura berrietara egokitzen.	

Izenburua	Mota	Arloa	Identifikatutako ekintza	PAESean sartzeko neurriak
MUGIKORTASUNA				
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Mugikortasuna. Udala	Energia garbiak kontsumitzen dituzten ibilgailuak erosi	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana eta Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.	Plana.	Mugikortasuna. Bizitegiak.	Garraio publikoa zabaltzea. Laramendira doan autobus zerbitzuaren emendatzea.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Mugikortasuna. Bizitegiak.	Geltoki intermodala eraiki.	
		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Tolosako landa auzoetara iristeko, garraio publikoaren sistema aztertzea.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Mugikortasuna. Bizitegiak.	Garraio publikoaren eskaintza egitea Donostia etorbideko eta Laskoain goikoako industrialdeetara joateko.	
		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Gazteentzako zerbitzu bereziak kontsolidatu, festetan kotxearen erabilera gutxitzeko.	
		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Aparkaleku publikoak eta kanpo aldeko aparkalekuen erabilera sustatu.	
Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana	Plana.	Mugikortasuna. Bizitegiak.	Tolosako garraio-bidearen eskema moldatu. Zumalakarregi bidea "lasaitu" Gorosalen kalearen moldaketa (zamaketa-hustuketa lanetarako, garraio publikoaren erabilerarako, etab.)	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana eta Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Bidegorri sarea handitu auzo berrietara.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana eta Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Bizikletentzako aparkaleku egokiak eta seguruak ezari.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana eta Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Oinezkoen ibilbideak hobetzeko, kaleak eta auzoetara iristeko bideak urbanizatu. Oineakoen bideen moldatze eta hobetze lanak eta kale berrien "lasaitzea".	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana eta Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana.		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Udalerrian "30 zona" kontsolidatu.	
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Heritarrek sentsibiltzatzeko kanpainak, mugikortasun jasangarria sustatzeko eta herria autoa gutxiago erabiltzeko.	Elementu sustatzaileetat sartuko da.
Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Zamaketa-hustuketa lanen moldaketa.	
Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako Plana		Mugikortasuna. Bizitegiak.	Lanerako Mugikortasuna hobetzeraren, Eskaera Kudeaketaren Planaren garapena-	Elementu sustatzaileetat sartuko da.

Izenburua	Mota	Arloa	Identifikatutako ekintza	PAESean sartzeko neurriak
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK				
Tolosako Tokiko Agenda 21 Plana.	Plana.	Energia Berriztagarriak	Udal eraikin eta instalakuntzetan plaka fotoboltaikoak ezari.	
HONDAKINAK				
Tolosako Tokiko Ekintza Agenda 21 Plana.	Plana.	Hondakinak. Udala.	Irizpideak ezari hondakinak biltzeko sistemari buruz eta biltzeko guneen	Elementu sustatzaile moduan sartuko dira ekintza guztiak, kontsumo arduratsua eta hondakinen murizpenaren aldeko sentsibilizazio kanpainaren baruan.
		Hondakinak. Bizitegiak.	Azokak eta feriak sendotu.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Erosketarako poltsa sortu merkatuko poltsak kentzeko.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Sentsibilizazio ekintzak hondakinen arazoari buruz eta haiek gutxitu.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Sentsibilizazio kanpainak egin haur, gazte eta helduekin, jakitera emateko zer gizarte eta ingurumen ondorioak dituzten euren erosketa erabakiak.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Kanpainak egin garapen jasangarria errespetatzen duten kontsumitzeko erak	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Portaera osasuntsuak saritu eta bultzatu, jarrean eta jokabideen aldatetan motor	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Bigarren eskuko merkatuak sustatu.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Festa jasangarriak antolatu.	
		Hondakinak. Bizitegiak.	Bertako produktuak eta etiketa ekologikoak dituzten produktuen	
URA				
Tolosako Tokiko Ekintza Agenda 21 Plana.	Plana.	Ura. Udala.	Udal instalazioetan ura aurrezteko eta kontsumo eraginkorra egiteko neurriak hartu.	Elementu sustatzailetzat sartuko da.
		Ura. Udala, Bizitegiak eta Zerbitzuak.	Ur kontsumoa gutxitzeko eta arrazionalizatzeko kanpainak antolatu.	
INGURU NATURALA				
Tolosako Tokiko Ekintza Agenda 21 Plana.	Plana.	Ingurune Naturala. Udala.	Tolosako gune naturalei buruzko sentsibilizazioa.	
		Ingurune Naturala. Udala.	Ingurumen-praktika onen eskuliburua idatzi berdeguneak mantentzeko	
		Ingurune Naturala. Udala.	Baso birlanaketa, baso berriak egin eta/edo basoko zonak mantendu, CO ₂ zurrupatzen duten guneak ondo kudeatuta.	

3. 2006-2009 urteetako kontsumo energetikoak

3.1. Tolosako kontsumo energetiko globala

Jarraian 2006-2009 urteetan zehar Tolosan izandako kontsumo energetikoak aurkezten dira. Ikusi daitekeenez, udalerriko kontsumo energetikoan %8aren emendioa eman da industria sektorea kontuan izan gabe.

Tolosako kontsumo energetikoa 2007 urtean, EIEParen lanketarako oinarri-urte bezala hartuko den urtean, 265.685 MWh-takoa izan zen, industria sektorea kontuan hartu gabe. Biztanleko izandako kontsumoak 2007 oinarri-urte honetan, 14,9 MWh/biztanleko izan ziren.

Taula 3: Tolosako kontsumoen bilakaera, alor desberdinetan (2006-2009).

Arloak	2006	2007	2008	2009
	MWh			
Mugikortasuna	203.092	200.294	193.543	184.362
Bizitegiak	46.770	50.164	51.300	44.689
Zerbitzuak	17.382	20.127	18.873	19.897
Energia Berriztagarriak	25	25	593	547
Guztira	267.219	270.561	263.124	248.401
Kontsumoak biztanleko	14,9	15,1	14,7	13,8

Aurreko taulan ikusten den bezala, urte guztietan, kontsumo handienak erregistratu dituen arloa mugikortasuna.

Ondoren datorren taulan, Tolosako energia-iturriaren araberako kontsumoen bilakaera agertzen da, industriako kontsumoa kontutan hartu gabe. Erabilitako energia iturriari dagokionez, ibilgailuek erabiltzen duten A gasolioa (mugikortasun alorrean) izan da nagusia aztertutako denboraldi osoan. Jarraian, bai bizitegi, bai zerbitzuetan, kontsumitutako gas naturala eta mugikortasunean erabilitako gasolina kokatuko lirateke.

Taula 4: Tolosako kontsumoen bilakaera, erabilitako energia iturriaren arabera (2006-2009).

Iturri energetikoa	2006	2007	2008	2009
	MWh			
Elektrizitatea	22.262	23.117	23.046	22.404
Gas Naturala	33.534	37.056	32.250	25.921
GLP	4.425	5.167	7.782	7.578
C Gasoleoa	3.932	4.952	7.095	8.684
Gasolina	30.231	26.008	25.020	24.401
A Gasoleoa	172.199	171.611	163.635	153.042
Biodiesela	661	2.676	4.889	6.918
GUZTIRA	267.244	270.586	263.717	248.949

3.2. Udalerriko arlo desberdinen kontsumoak

3.2.1. Bizitegiak

Ondorengo taulan 2006-2009 denboraldian zehar etxebizitzetan izandako kontsumoak agertzen dira, erabilitako erregai motaren arabera. Oinarri urtean (2007), Tolosako bizitegi alorraren kontsumoa 50.164 MWh-takoa izan zen.

Taula 5: Bizitegi alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	MWh			
Elektrizitatea	10.724	10.824	10.699	11.111
Gas Naturala	30.703	32.730	30.381	22.782
Petrolio-eratorriak	3.540	4.339	6.965	6.812
C Gasoleoa	1.804	2.272	3.255	3.983
GUZTIRA	46.770	50.164	51.300	44.689
GUZTIRA biztanleko	2,6	2,8	2,9	2,5

Aipatzekoa da, 2006 eta 2009 urteetan kontsumoa baxuagoa izan zela. Oro har, denboraldian zeharreko joera beherazkoa izan da, nahiz eta 2007 eta 2008 urteetan kontsumo igoera bat egon. Honela, 2009 urtean, energia kontsumoan %4ko murrizpena lortu da, krisiaren eragina

3.2.2. Zerbitzuak

Jarraian zerbitzu alorrean aztertutako denboraldirako (2006-2009) izandako energia kontsumoa laburbiltzen da, erabilitako erregai motaren arabera aurkeztua. Ikus daitekeenez, 2006tik aztertutako azken urtera, %14ko kontsumo igoera eman da zerbitzuen alorrean. Oinarri urteko, 2007, kontsumoa zerbitzu alorrean, 20.127 MWh-takoa izan zen.

Taula 6: Zerbitzu alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	MWh			
Elektrizitatea	11.538	12.293	12.347	11.292
Gas Naturala	2.830	4.326	1.868	3.139
Petrolio-eratorriak	885	828	817	766
C Gasoleoa	2.128	2.680	3.841	4.700
GUZTIRA	17.382	20.127	18.873	19.897
GUZTIRA biztanleko	1,0	1,1	1,1	1,1

3.2.3. Mugikortasuna

Ondorengo taulan, mugikortasun alorrari egokitutako kontsumoak aurkezten dira aztertutako urteetarako (2006-2009), erabilitako erregai motaren arabera. 2007 urteko mugikortasun alorraren kontsumoa 200.294 MWh-takoa izan zen. Aztertutako denboraldian (2006-2009) ibilgailuen erregaien kontsumoa %9an areagotu zen.

Taula 7: Mugikortasun alorraren energia kontsumoaren bilakaera (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	MWh			
Gasolina	30.231	26.008	25.020	24.401
A Gasoleoa	172.199	171.611	163.635	153.042
Biodiesela	661	2.676	4.889	6.918
GUZTIRA	203.092	200.294	193.543	184.362
GUZTIRA biztanleko	11,4	11,2	10,8	10,2

3.2.4. Hondakinak

Tolosako udalerrian sortutako hondakin eta hauen kudeaketari dagokionez, jarraian laburtutako taulan, aztertutako denboraldian jarraitutako hondakin kudeaketa eta sortutako hondakin kopurua beha daitezke. 2007 urtean Tolosan 7.380 tona hondakin sortu ziren, hauetatik %20a banaketa selektiboaren bidez kudeatuta izanik.

Taula 8: Hondakin alorraren sortutako hondakin kantitate eta mota (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	TONAK			
Plastikoak	161	179	220	248
Beira	483	536	560	561
Papera eta Kartoia	772	834	829	1.013
Konpostaia	0	0	0	0
Guztira banaketa selektiboa	1.416	1.549	1.609	1.822
Zabortegia	5.296	5.887	5.495	5.682
GUZTIRA hondakinak	6.712	7.436	7.104	7.504
GUZTIRA biztanleko	1,03	1,14	1,09	1,14

3.3. Udaletxeko kontsumo energetikoak

Honako atalean Tolosako Udaletxeko kontsumo inbentarioa burutu da 2007eta 2008 urteetarako.

Taula 9: Udaletxeko kontsumo energetikoak (2007-2008).

Arloak	2007	2008
	MWh	
Udal Flota	61	72
Argiztapen publikoa	1.420	1.402
Udal eraikinak (elektrizitatea)	3.481	3.049
Udal eraikinak (gas naturala)	1.256	1.329
Udal eraikinak (C gasoleoa)	151	152
Udal eraikinak (propanoa)	99	78
Udal eraikinak (energia berriztagarriak)	5	5
GUZTIRA	6.463	6.078

Aztertutako bi urteetan, Udaletxeko kontsumo handiena Udal eraikinetako elektrizitate kontsumoari egotzi zitzaien, batzbestek Udaletxean kontsumitutako energiaren erdia suposatuz. Jarraian argiztapen publikoaren kontsumoa kokatzen da, bi urteetan balio berdintsuak lortuz.

Erregai fosilei dagokiela, gas naturala izan zen energia-iturri nagusia aztertutako bi urteetan, eta aipatzekoa da, honakoa izan zela 2008an gorakada nabarmena izan duen energia-iturri bakarra. Izan ere, oro har, 2007tik 2008ra Udaletxeko energia kontsumoa %6an murriztu da, beherakada nabarmenena udal eraikinetan topatuz.

4. 2006-2009 urteetako NEG isurpenen inbentarioak

4.1. Tolosako NEG isurpenen inbentario globala

Atal honetan Tolosako negutegi efektuko gasen inbentario orokorra aurkezten da. Horretarako, 2006tik 2009rainoko alor guztietako kontsumoak bildu dira eta Udalsarea 21 Lan-Koordenoko 5. zenbakian¹ azalduko kalkulatu-metodologia erabiliz NEG isurpenak kalkulatu dira. Lorturiko negutegi efektuko gasen isurpenen balioak ondoko taulan azaltzen dira.

Taula 10: Tolosako NEG inbentarioaren bilakaera (2006-2009).


Arloak	2006	2007	2008	2009
	tCO ₂ b			
Mugikortasuna	54.585	53.783	51.847	49.256
Bizitegiak	11.931	12.639	12.973	11.818
Zerbitzuak	6.117	6.809	6.642	6.739
Hondakinak	9.683	10.764	10.053	10.397
Industria	20.848	17.256	30.198	12.949
Energia Berriztagarriak	10	10	245	226
Guztira (industria gabe)	82.306	83.984	81.271	77.984
Guztira (industriarekin)	103.154	101.240	111.469	90.933
Isurpenak biztanleko (industria gabe)	4,60	4,70	4,54	4,32
Isurpenak biztanleko (industriarekin)	5,77	5,66	6,23	5,04

Taulan ikusi daitekeenez, 2007 urtean NEG isurpenen maximoa egon zen. Ondoren, isurpenen %5,3ko murrizketa egon zen 2009 urteraino, industria sektorea kontuan izan gabe.

Tolosako NEG isurpenenak 2007 urtean, hots, EIEP-aren oinarri urtean, 8.984 tona CO₂ baliokide izan ziren, industri sektorea kontuan hartu gabe eta 101.240 CO₂ industriarekin. Oinarri urteko isurpenak biztanleko 4,70 tCO₂b/bizt izan ziren.

NEG isurpenen arlo desberdinetan azterketa eginez, mugikortasunak du isurpen kopuru handiena denboraldi osoko urteetan (2006-2009), isurpen guztien erdia baino gehiago adieraziz. Esan beharra dago, 2009 urtean arlo guztietan egon zela isurpenen murrizketa, hondakin arloan izan ezik.

¹ Klima-aldaketa. Udaleko CO₂e-emisio baliokideen kalkulua. Tresnari buruzko erabiltzaile-eskuliburua. IPCCaren metodologia eta gomendioak jarraituz landutako Lan koadernoa.



Grafikoa 1: Tolosako NEG isurpenen (tCO₂b) banaketa alor desberdinetan, 2007 urtea.
Iturria: lanketa propioa.


EIEPerako aukeratutako oinarri urtean, hots, 2007 urtean, mugikortasun alorra Tolosako NEG isurpenen erdia baino gehiagoren arduraduna izan zen, isurpenen %64a suposatuz. Ondoren, bizitegi alorrak, hondakinak eta azkenik zerbitzuak kokatu ziren, hauen portzentai balioak %15, %13 eta %8 izanik hurrenez hurren.

NEG isurpenen banaketa kontsumitutako energia iturri motaren arabera eginez aztertutako urteetan, ondoko taula lortu da. Isurpen gehien izan zuena iturri- A gasolioa izan zen, isurpen guztien erdia adieraziz. Atzetik, eta balio berdintsuekin, elektrizitatea, hondakinak, gasolina eta gas naturala erregai-iturriak zetozen.

Taula 11: Tolosako NEG inbentarioaren bilakaera, erabilitako energia-iturriaren arabera (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	tCO ₂ b			
Elektrizitatea	9.211	9.456	9.427	9.269
Gas Naturala	6.779	7.491	6.520	5.240
Petrolio-eratorriak	1.006	1.175	1.769	1.723
C Gasoleoa	1.053	1.326	1.899	2.324
Gasolina	7.725	6.646	6.393	6.235
A Gasoleoa	46.717	46.557	44.393	41.520
Biodiesela	144	581	1.061	1.502
Hondakinak	9.683	10.764	10.053	10.397
Energia Berriztagarriak	10	10	245	226
GUZTIRA	82.306	83.984	81.271	77.984

Argiago ikusteko, oinarri urteko (2007) isurpen-iturri desberdinen portzentaiak grafikoki adierazten dira.



Grafikoa 2: Tolosako NEGen iturriak 2007 urterako.
Iturria: lanketa propioa.

Oinarri urtean, Tolosako NEG isurpenen %76a erregai kontsumoari dagokio. Ondoren, hondakin ekoizpenei dagozkien isurpen portzentaia dator eta azkenik, elektrizitate kontsumoa %11rekin.

4.2. NEG inbentarioak udalerriko alor desberdinetan

Jarraian, Tolosako arlo desberdinetarako analisia egin da azterketa urteetarako, hots, 2006-2009 urteetan.

4.2.1. Bizitegiak

Ondorengo taulan bizitegi alorrean lorturiko isurpenak adierazten dira, hauek energia iturriaren arabera sailkatu dira.

Taula 12: Bizitegi alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	t CO ₂ b			
Elektrizitatea	4.437	4.428	4.377	4.597
Gas Naturala	6.207	6.617	6.142	4.606
Petrolio-eratorriak	805	987	1.584	1.549
Gasoleoa	483	608	871	1.066
GUZTIRA	11.931	12.639	12.973	11.818
GUZTIRA biztanleko	0,67	0,71	0,73	0,65

Datuen arabera, oinarri urtean izandako NEG isurpenak 12.639 tCO₂b-takoak izan ziren. Isurpen guztietatik, batezbeste erdia gas naturala energia-iturriari dagokio. Adierazgarria da, petrolio-eratorriak eta gasolioaren kontsumoa aztertutiko denboraldian handituz joan zirela. Bestelako energia iturrietan balioak nahiko antzekoak izan ziren, gas naturala izan ezik, 2009 urtean jaitsiera bat izan zuelako.

4.2.2. Zerbitzuak

Jarraian datorren taulan, zerbitzu alorrari loturiko isurpenak azaltzen dira energia-iturri desberdinetan sailkatuta. Kasu honetan, isurpen gehien izan zuen energia iturria elektrizitatea izan zen, isurpen guztien hiru laurdena adieraziz. Oinarri urtean (2007), zerbitzu alorraren isurpenak 6.809 tCO₂b-takoak izan ziren.

Taula 13: Zerbitzu alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	t CO ₂ b			
Elektrizitatea	4.774	5.029	5.051	4.672
Gas Naturala	572	874	378	635
Petrolio-eratorriak	201	188	186	174
Gasoleoa	570	717	1.028	1.258
GUZTIRA	6.117	6.809	6.642	6.739
GUZTIRA biztanleko	0,34	0,38	0,37	0,37

4.2.3. Mugikortasuna

Ondorengo taulan, mugikortasun alorrari loturiko isurpenak azaltzen dira aztertutako urteetarako (2006-2009), isurpen-iturrien arabera. 2007 oinarri urtean mugikortasun alorraren isurpenak 53.783 tCO₂b-takoak izan ziren eta 3,01 tCO₂b/biz egon ziren. Aztertutako denboraldi osoan (2006-2009), ibilgailuen erregaiek eragindako isurpenak %10an murriztu ziren.

Taula 14: Mugikortasun alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	t CO ₂ b			
Gasolina	7.725	6.646	6.393	6.235
Gasoleoa	46.717	46.557	44.393	41.520
Biodiesela	144	581	1.061	1.502
GUZTIRA	54.585	53.783	51.847	49.256
GUZTIRA biztanleko	3,05	3,01	2,90	2,73

Aurreko taulan beha daitekeenez, A gasolioak eragin ditu isurpen gehienak urte guztietan. Aipagarria da biodieselaren erabilpenean eman den gorakada, bere erabilpena gero eta zabalagoa eginez.

4.2.4. Hondakinak

Jarraian aurkezten den taulan, hiri hondakinen kudeaketari mota bakoitzari loturiko isurpenak azaltzen dira. Tolosako kasuan, hondakinak eragindako isurpen handienak zabortegean sortutako NEG-i dagozkie. EIEParen oinarri urtean (2007) hondakinei egotzitako isurpenak 10.764 tCO₂b-takoak izan ziren eta 0,60 tCO₂b/biztanlekoa izan zen.

Taula 15: Hondakin alorraren NEG isurpen bilakaerak (2006-2009).

Iturria	2006	2007	2008	2009
	t CO ₂ b			
Birtziklapena	18	20	24	27
Zabortegea	9.665	10.744	10.029	10.370
GUZTIRA	9.683	10.764	10.053	10.397
GUZTIRA biztanleko	0,54	0,60	0,56	0,58

4.3. Udaletxeko NEG inbentarioa


Honako atalean Tolosako Udaletxeko negutegi efektuko gasen inbentarioa burutu da 2007 eta 2008 urteetarako.

Taula 16: Udaletxeko NEN gen isurpenak udal atal desberdinen arabera (2007-2008)

Arloak	2007	2008
	tCO ₂ b	
Udal Flota	34	36
Argiztapen publikoa	581	574
Udal eraikinak (elektrizitatea)	1.424	1.247
Udal eraikinak (erregaiak)	321	331
Udal eraikinak (energia berriztagarriak)	2	2
GUZTIRA	2.358	2.186


Aztertutako denboraldian, oro har, udaletxeko NEN gen isurpenek beheranzko joera izan dute.

EIEParen lanketarako aukeratutako oinarri urtean, 2007 urtean, Udaletxeko NEN gen isurpenak 2.358 tCO₂ b-takoak izan ziren. 2007 urtean udal eraikinei loturiko isurpenek guztien %74a adierazi zuten, beraz, kopuru handiena adierazi zuten, erregai eta elektrizitate kontsumoagatik. Jarraian, argiztapen publikoa kokatu zen, %25arekin, eta azkenik udal flota %1eko portzentaiarekin.



Grafikoa 3: Tolosako Udaletxeko isurpenen banaketa 2007 urtean.
Iturria: Lanketa propioa.

Udal eraikinetan kontsumitutako energiagatik sortutako isurpenei dagokionez (%74), %60 elektrizitate kontsumoagatik sortu ziren eta %14 erregai fosilen erabileragatik.



Grafikoa 4: Tolosako Udaletxeko isurpenen iturria 2007 urtean.
Iturria: Lanketa propioa.

5. Lurraren erabilera eta Lur-erabilera sektorearen NEG isurpen inbentarioa.

5.1. Orokortasunak.


Ondorengo atalean, Tolosako udalerrian "lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketa" (LELEA) sektorearen barne gertaturiko NEG xurgapen eta isurpenak aurkezten dira. Inbentario honetarako egin beharreko kalkuluak *Klima Aldaketarako Nazioarteko Gobernu Arteko Panelak* (IPCC-ak, ingelesezko izenagatik) proposaturiko metodologia jarraituz burutu dira, negutegi efektuko gasen inbentarioentzako 2006ko Gidalerroak erreferentzi moduan hartuz (4.Liburukia: nekazaritza, basogintza, eta beste lurraren beste erabilpenak). Bestalde, honako IPCCaren 2006ko Gidalerroak erabili dira ere, erreferentzia datu eta isurpen/xurgapen faktoreak eskuratzeko.

Jarraian laburbiltzen dira Tolosako *Lurraren Erabilera eta Lur-Erabilera Aldaketa* alorraren NEGen isurpen eta xurgapen inbentarioa burutzeko jarraitutako pausuak.

5.1.1.Lurraren erabilera desberdin bakoitzarentzaren azaleraren identifikazioa

Lurraren erabilera bakoitzari egotzitako azalaren identifikazioa burutzeko, lur-erabilera eta landare estalduraren gaineko CLC (Corine Land Cover) kartografia erabili da GIS formatuan 2000 eta 2006 urteetarako. CLCek eskainitako lur-erabilera kategoriak IPCC Gidalerroek proposaturiko kategorietara moldatuak izan dira. Jarraian agertzen den irudian IPCCak proposatzen dituen lur-erabilerak aurkezten dira.

Irudia 1: Lur-erabilpenaren kategoria desberdinak IPCCaren metodologiaren arabera.




5.1.2. Erabilpen berdina izaten jarraitzen duten eta erabileraz aldatzen duten lur eremuen identifikazioa.

2000 eta 2006 urteetarako eskuratutako lur-erabilpen datuetatik abiatuz, denboraldiko lurraren erabilera eta lur-erabilpen aldaketak estimatu dira. Onartu egiten da lur-erabileraren aldaketa modu progresiboan eman dela 2000 urtetik 2006 urtera. Lortutako emaitzekin, lurraren erabilera eta lur-erabileraren aldaketa matrizea burutu da.

5.1.3. Eskualde klimatiko eta lurzoru motaren identifikazioa.

Tolosako klima ozeaniko epela da eta litologiari dagokiola, udalerrian batez ere inzeptisolak dira nagusi, aktibitate handiko buztina duen lurzoru minerala, baina entisol eta alfisolak ere aurki daitezke.

Irudia 2: Lurzoru mota desberdinak. Iturria: Lanketa propioa, CLC-etik moldatua.



5.1.4. Karbono stock-aren aldakuntzen estimazioa.

Tolosako LELEA sektorearen negutegi efektuko gasen xurgapen eta isurpen kalkuluak 2006 urterako "Tier 1"² zehaztasun mailarekin burutu dira.


Lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketa bakoitzerako karbono stock-aren aldaketak kalkulatu dira karbono-gordailu bakoitzerako (biomasa, materia organiko hila eta lurzoruko karbono organikoa) IPCCaren Gidalerroek gomendatutako metodologia jarraituz.

5.2. Ikerketa eremua: eremu fisikoa eta ezaugarri klimatologiko eta edafologikoak.

Ikerketa hau Tolosa udalerrian burutu da. 37,36 km²-rekin, Gipuzkoako probintziaren erdialdean kokatzen da, Oria ibaian bailaran eta itsasoaren gainetik 75 metrotara kokatzen da.

² IPCCaren Gidalerroak negutegi efektuko gasen inbentario nazionalen lanketarako (4.Liburukia: nekazaritza, basogintza, eta beste lurraren beste erabilpenak).

Irudia 3: Tolosako udalerriaren ortofotoez osotutako irudia. (Tolosako Kartografia).




5.3. Tolosako “Lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketa” sektorearen negutegi efektuko gasen xurgapen eta isurpen inbentarioa.

Jarraian 2000 eta 2006 urteetako lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketen matrizea beha daiteke.

Taula 17: 2000 eta 2006 urteetako lur-erabilpen matrizea. Iturria: Lanketa propioa.

Ha	Baso-lurrak	Larreak	Hezeguneak	Kokalekuak	Bestelako lurrak	Nekazaritza-lurrak	Guztira 2000
Baso-lurrak	1946,99	64,74	0	36,89	0	0	2.049
Larreak	79,65	1333,60	0	0,42	0	0	1.414
Hezeguneak	0	0	0	0	0	0	0
Kokalekuak	0	0	0	261,04	0	0	261
Bestelako lurrak	0	0	0	0	0	0	0
Nekazaritza-lurrak	0	0	0	0	0	0	0
Guztira 2006	2.027	1.398	0	298	0	0	3.723

Irudia 4: Tolosako lur-erabilpenak 2006 urtean IPCCaren kategorien arabera.
Iturria: Lanketa propioa, CLC-etik moldatua



5.4. Tolosako udalerriko karbono stock-aren aldakuntzen estimazioak.

Ondorengo taulan Tolosan luraren erabilera eta lur-erabilera aldaketarik lorturiko CO₂ xurgapen eta isurpenak aurkezten dira.

Taula 18: 2000 eta 2006 urteetako lur-erabilpen matrizea. Iturria: Lanketa propioa.

Erabilera/Erabilera aldaketa	Azalera		Xurgapen/Isurpenak (tCO ₂ e)
	2000-2006	2.006	2.006
BL-BL	1.947	1.947	-29.668
BL-L	65	10,79	2.815
BL-K	36,89	6,15	1.669
L-BL	79,65	13,27	-1.531
L-L	1.334	1.334	0,00
L-K	0,42	0,07	0,19
K-K	261	261	0,00
Guztira			-26.715

BL: Baso-lurra; L: Larreak; K: Kokalekuak; NL: Nekazale-lurra.

Onartu egiten da gertaturiko aldaketak modu progresiboan eman direla denboraldian zehar. 2006 urteari soilik aldaketa hauei loturiko xurgapen/isurpen guztien zati egotziko zaio eta bestelako azalera trantsizioan egongo da.

5.5. Ondorioak.

Tolosan lurraren erabilera eta lur-erabilera aldaketengatik gertatutako xurgapen eta isurpenak laburbiltzen dituen taulan beha daiteken moduan, bai CO₂ xurgapenak, bai CO₂ isurpenak eman dira. Dena dela, balantze globalari erreparatuz, **-26.715** tona CO₂-ko xurgapena gertatu da 2006 urtean. Xurgapen gehienak Baso lurretan gertatu dira (-29.668 tCO₂). Halaber, isurpen garrantzitsuenak larre bilakatutako baso lurretan gertatu dira (2.815 tCO₂).

6. Isurpen proiektzioak. Joera eszenatokia 2020 urterako

Aztertutako alor desberdinen etorkizuneko aurreikuspenak kontuan harturik, Tolosako NEG isurpenen joera eszenatokia garatzen da. Honako proiektzioak Energia Eraginkorraren aldeko Ekintza Plana martxan jarri ezean esperotako isurpenak islatzen ditu etorkizunean. Izan ere, EIEPean bildu diren neurriak geroko isurpenetan izango duten efektua ebaluatzeko erabilgarria izango da. Energia Eraginkorraren aldeko Ekintza Planeko eszenatokia atal honetan gehitutako joera-eszenatokiarekin alderatzea posible izango baita.


Joera eszenatokia garatzeko, INEk³ aurreikusitako hazkuntza eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailaren Koiunturaz buletinen aurreikusitako BPG⁴ datuen urteko aldakuntza tasek erabiliko dira. Ekonomia sailak 2013 urterako BPGaren balioa oraingoa baino negatiboagoa izatea espero du, urte arteko aldakuntza tasa %0,1koa izatea aurreikusten baitu (2012ko ekainaren 2ko 79. Buletineko datuetan oinarritua).

6.1. Energia kontsumo eta negutegi efektuko gas isurpen globalak. 2020rako joera eszenatokia.

Tolosako alor guztien joerak aztertu ondoren, joera eszenatokiko isurpenak laburtu dira, jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen moduan. Alkateen Itunaren helburua urte honetarako NEGen %20 isurpen murrizketa lortzea dela kontuan izanik, Tolosak gutxienez 10.219 murriztu behar ditu bere konpromisoa betetzeko.


³ Instituto Nacional de Estadística

⁴ Barne-produktu gordina




Grafikoa 5: Analisis kontuan harturik alor desberdin guztien kontsumo bilakaera.
Iturria: lanketa propioa.

2020 urtean kontsumituko den energiari dagokiola, eta aurreko grafikoan beha daitekeenez, 249.169 MWh kontsumituko direla estimatzen da. Sortutako hiri hondakinak gainera, 7.068 tonatara iritsiko dira, gaurko joera jarraitu ezker, neurri gehigarriak martxan jarri gabe.




Grafikoa 6: Tolosa udalerriko NEG isurpen globalen bilakaera.
Iturria: lanketa propioa.

Goiko grafikoan beha daitekeenez, 2020 urterako, egungo joera mantenduz, **77.407 tCO₂b-tako isurpenak espero dira** udalerrian kontsumitutako energia iturri eta ekoiztutako hondakinen kudeaketak sorturiko isurpenak direla eta. Honek, 2007 urtearen aldean isurpenen -%8ko beherapena suposatzen du.



Grafikoa 7: Tolosako per capita kontsumoen bilakaera. Iturria: Lanketa propioa.

Biztanleko 2020 urtean aurreikusten diren energia kontsumoari dagokionez, 2020 urtean Tolosako biztanle bakoitzak 15 MWh kontsumitzea eta 0,4 tona hondakin sortzea aurreikusten da.



Grafikoa 8: Tolosako per capita erakutsitako NEG isurpenen bilakaera. Iturria: Lanketa propioa.


Bestalde, Tolosa herritar bakoitzeko, 2020 urterako CO₂ isurpenak -%47an beharretzea aurreikusten dira, 4,7 tCO₂b/biz-tik 4,5 tCO₂b/biz-ra murriztuz.

6.2. Alor desberdinen energia kontsumo eta negutegi efektuko gasen isurpenak. 2020rako joera eszenatokia.

Jarraian datozen azpiataletan EIEParen lanketarako kontuan harturiko alor desberdin bakoitzerako estimatutako kontsumo eta isurpenak banakatzen dira.


6.2.1. Bizitegiak

Bizitegi alorraren etorkizuneko kontsumoa eta beraz, isurpenak estimatzeko, Ekonomia Sailak aurreikusitako hazkunde ekonomikoak erabili dira. Honela, bizitegietarako lortutako joera eszenatokia jarraian dauden grafikoetan aurkezten da.



Grafikoa 9: Tolosako joera eszenatokiko bizitegien kontsumoaren bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


Tolosako etxebizitzaren alorrean 2020 urtean 44.729 MWh kontsumituko direla estimatzen da, ondorioz, 11.828 tCO₂b isurituz.



Grafikoa 10: Tolosako joera eszenatokiko bizitegien NEG isurpenen bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


6.2.2. Zerbitzuak

Zerbitzu alorraren etorkizuneko kontsumoa eta beraz, isurpenak estimatzeko, Ekonomia Sailak aurreikusitako hazkunde ekonomikoak erabili dira. Honela, zerbitzuetarako lortutako joera eszenatokia jarraian dauden grafikoetan aurkezten da.



Grafikoa 11: Tolosako joera eszenatokiko zerbitzuen kontsumoaren bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


Tolosan, alor honi dagokionez, 2020an 19.915 MWh kontsumituko direla estimatzen da, ondorioz, 6.745 tCO₂b isurituz.



Grafikoa 12: Tolosako joera eszenatokiko zerbitzuen NEG isurpenen bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


6.2.3. Mugikortasuna

Mugikortasun alorraren etorkizuneko kontsumoa eta beraz, isurpenak estimatzeko, Jaurlaritzako Ekonomia sailak aurreikusitako hazkunde ekonomikoak erabili dira. Honela, mugikortasun alorrarentzat lortutako joera eszenatokia jarraian dauden grafikoetan aurkezten da.



Grafikoa 13: Tolosako joera eszenatokiko mugikortasunari loturiko kontsumoaren bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


Tolosan alor honi dagokionez, 2020an 184.525MWh kontsumituko direla estimatzen da, ondorioz, 49.300 tCO₂b isurituz.



Grafikoa 14: Tolosako joera eszenatokiko mugikortasunari loturiko NEG isurpenen bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.


6.2.4. Hondakinak

Tolosako udalerrian hiri hondakinaren etorkizuneko ekoizpenarena eta beraz, isurpenen estimazioa burutzeko INE⁵-k estimatutako populazioaren proiektzioa erabili da. Honela, hondakinaren alorrarentzat lortutako joera eszenatokia jarraian dauden grafikoetan aurkezten da.



Grafikoa 15: Tolosako joera eszenatokiko hondakinaren ekoizpenaren bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.

2020 urtean Tolosan 7.068 tona hiri hondakin ekoiztuko direla estimatzen da, ondorioz, 9.760 tCO₂b isurituz.



Grafikoa 16: Tolosako joera eszenatokiko hondakinei loturiko NEG isurpenen bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.

⁵ Estadística Instituto Nacionala (Instituto Nacional de Estadística)

7. Estrategia

2011ko martxoan, Tolosa Alkateen Itunaren kide egin zen negutegi efektuko gasen isurpenak gutxienez %20an murriztera konprometituz. Oinarri-urtea definitu ondoren eta 2020 urteari begira, udalerrian aurreikusten zen joera eszenatokia aztertu zen, sinatutako ekimenaren helburua betetzeko honako atalean azaldutako estrategia finkatzeko.

EIEPerako aukeratutako oinarri urtean, hots, 2007 urtean, mugikortasun alorra NEG isurpenen erdia baino gehiagoren arduraduna izan zen. Ondoren, bizitegi alorrak, hondakinak eta azkenik zerbitzuak kokatu ziren. Herrian dagoen industria ez da kontuan hartu, izan ere, Udalak, herritar eta udal eraikinetan, batez ere, eragin ditzake ohitura eta jokabide aldaketak.

Honela izanda, Tolosako 2007 urteko NEG isurpenak %20ko murrizpen helburutik haratago murriztu nahian, mugikortasun alorra isurpenen erdia baino gehiagoren arduraduna izan arren, udalerrian, eraginkortasun energetikoa, ura eta hondakinen esparruetako ekintzei lehentasuna emango zaie Energia Iraunkorreko Ekintza Plan honetan, hauek baitira murrizpen gaitasun handiena duten esparruak. Dena dela, mugikortasun alorrean ekintza asko jarri dira martxan eta era berean jarraituko da.

Hondakinei dagokienez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren helburuak jarraituz, Zero Zabor Politikak hain zuzen ere, gaikako zabor bilketa bultzatuko da gaikako sistema selektibo baten bidez, hiri hondakinen gai desberdinen bilketa sustatuz eta soilik beiraren bilketarako edukiontzia mantenduz.

Eraginkortasun energetikoaren esparruan, bai argiztapen publikoan baita udal eraikinetan ere, eraginkortasunaren hobekuntza aurreikusten duten ekintzak burutuko dira, instalazioak berrituz edota moldatuz. Beste alde batetik, bizitegi eta zerbitzu alorretan hainbat eraberritze sustatuko dira, jarduera egokien kanpainaz lagunduta, Europar Batasuneko Energia politikaren helburura iristeko asmoarekin.

Uraren ildoan, ur hornidura sarearen berrikuntzan esfortzu handia egingo da, eta Samaniego eskolan euri ura aprobetxatzen duen sistema independente bat ezarriko da, ur galerak eta xahubideak ekiditeko.


Halaber, EIEPean landutako beste ildoak, energi berriztagarriak, mugikortasuna eta inguru naturala, hain zuzen ere, ez dira alde batera utziko. Ildo hauetan zehaztutako neurriek, bizitegien arloan eragingo dute bereziki, herritarren NEG isurpenak murriztuz. Mugikortasun ildoak batzen dituen neurrien bidez, mugikortasun jasangarria sustatuko da, hau da, oinezko, bizikleta eta garraio publikoaren mugikortasuna. Beste aldetik, energia berriztagarrien ildoan eguzki plakak(bai fotovoltaiakoak, bai termikoak) eta biomasa bultzatuko dira. Azkenik, inguru naturala ildoaren bidez, Udaleko baso azalera emendatuko da, NEG xurgapen gaitasuna areagotuz.

Ondoko taulan Alkateen Ituneko helburuak betetzeko aukeratutako ekintzen-ildo potentzialak azaltzen dira.

Taula 19: ildo estrategiko bakoitzean identifikaturiko ekintza-lerro potentzialak.

ILDO ESTRATEGIAKOA	EKINTZEN ARLO NAGUSIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNA	Eraikinen birgaitzea, bai kanpo egituran bai itxituretan (leihoetan).
	Eraikinetako argiteriaren aldaketa. Kanpo argiteriaren ordezkapena.
	Berokuntza sistemen eraginkortasuna areagotzea (galdarak aldatuz, balbulak instalatuz, erregulazio zuzena ezarri, etab.).
	Tresna elektriko eraginkorren eskurapena. Jarduera egokiak bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak.
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	Plaka fotovoltaiako eta termikoen instalazioa. Biomasa galdara instalatu
	Ibilgailu elektrikoaren eskurapena. Garraio publikoaren eskaintzaren hobekuntza Oinezkoen mugikortasunaren sustapena. Mugikortasun iraunkorraren aldeko sentsibilizazio kanpainak.
HONDAKINAK	Hondakinen kudeaketaren aldaketa.
URA	Ur hornidura sarearen berrikuntza. Euri uraren ustiapena. Ur kontsumoaren murrizpena.
	INGURU NATURALA

Ildo estrategiko guztietako neurrien murrizketak kontuan hartuta, Tolosako EIEPean bidez 2007 urtearekiko NEG isurpenen murrizketa %24koa izango da.



Grafikoa 17: Ildo estrategiko bakoitzaren garrantzia identifikatutako hiru alorretan.
Iturria: Lanketa propioa.

EIEPean biltzen diren alor ezberdinetako neurri kopurua hurrengo taulan beha daiteke, alor bakoitzari dagokion CO₂b isurpenarekin baita ezarpenerako aurreikusitako aurrekontuarekin ere.

Taula 20: Alor ezberdinetan bildutako neurriak, hauen isurpenak eta aurrekontuak.

ARLOAK	NEURRI KOPURUA	ISURPEN MURRIZKETAK	AURREKONTUA
Udala	33 neurri	8.760 tCO ₂ b	12.112.122 €
Bizitegiak	22 neurri	4.494 tCO ₂ b	125.769.712 €
Zerbitzuak	5 neurri	410 tCO ₂ b	452.448 €
EIEP	60 neurri	13.774 tCO ₂ b	138.334.282 €

8. Tolosako EIEParen neurriak

Hurrengo atalean, Tolosako EIEParen bidez aurrera eramango diren neurriak aurkezten dira, Energiaren Euskal Erakundeak proposaturiko fitxa ereduaren bidez adierazita. Hona hemen, fitxak dakarren informazio atalen deskribapena.

Neurriaren izenburua

Ildo estrategikakoa: ekintza Planean landuko diren eta aztertzeko xede izango diren ildo estrategikok: energia-eraginkortasuna, mugikortasuna, energia berriztagarriak, hondakinak, ura edo inguru naturala.

Alorra: energia kontsumitzen duen esparrua: udal ekipamenduak, bizitegiak eta zerbitzuak.

Lehentasun maila: neurriaren ezarpen garrantzia adierazten du lelik 5erako balioetan. Eranskinetan azaltzen dira neurrien lehentasuna zehazteko erabilitako irizpideak.

Neurri mota: inbertsio batez lagundutako ekintza edo ohitura kanpaina

Helburua: neurriaren xedea adierazten du.

Neurriaren deskribapena: neurriaren ezaugarriak adierazten ditu

Eragile parte hartzailea/Xede-publikoa: ekintza martxan jartzean parte hartzen duten hiritar taldeak, elkarteak edo bestelako eragileak. /Komunikazio edo sensibilizazio kanpainen hartzaile izango diren hiritar taldeak, elkarteak edota bestelako eragileak.

Arduraduna: proposaturiko ekintzen martxan jartze eta jarraipenaz arduratzen den udaleko alorra, elkarteak, pertsonak.

Beste plan batzuekin erlazioak: neurri berdina edo antzekoa duen plana.

Egutegia eta maiztasuna: neurriak martxan jartzeko aurreikusten den denboraldia adierazten du.

Esleitutako adierazlea: ekintzen irismena ezagutzeko eta urteetan zeharreko jarraipena aurrera eramane ahal izateko, ezinbestekoa da neurriari loturiko indikatzaileak identifikatzea. Adierazleak alde batetik, sintetikokoak eta ulergarriak izan behar dira, bestetik, neurgarriak eta ez oso ugariak izatea komeni da, neurriaren arduradunek erraz kuantifika dezaten. Gainera, Udalak berak erabiltzen dituen adierazleekin bat etortzea egokia litzateke

LOTUTAKO ELEMENTU SUSTATZAILEA

Deskribapena: EIEPea neurrien ezarpenaren laguntzen duten elementuak dira. Ezinbestekoak dira bereziki zuzenean udalek martxan jarri ez daitezkeen ekintzak aurrera eramateko, hots, bizitegi eta zerbitzu alorretan.

Mota: elementu sustatzaile mota nagusiak, Hirigintza planak, Ordenantzak, Ekintza Planak, Zergak eta Dirulaguntzak dira.

Arduraduna: proposaturiko elementu sustatzailea martxan jartze eta jarraipenaz arduratzen den udaleko alorra.

Egutegia: elementu sustatzailea martxan jartzeko aurreikusten den denboraldia adierazten du.

Aurrezpena 2020 urtean: neurrien ezarpenagatik 2020 urtean lortuko den energia, ura edo hondakin ekoizpenaren aurrezpena adierazten du (kWh, m³ edo t).

Energia berriztagarrien ekoizpena: neurriengatik ekoiztutako energia berriztagarri kopurua (kWh).

Aurrezpena planaren denboraldian: neurriaren ezarpenagatik EIEParen denboraldian lortuko den energia, ura edo hondakin ekoizpenaren aurrezpena adierazten du (kWh, m³ edo t).

Kostua/tCO₂: egindako inbertsioa eta EIEParen denboraldian murriztutako CO₂b isurpenen arteko erlazioa (€/tCO₂b).

2020 urtean saihestutako emisioak: neurrien ezarpenagatik 2020an lortuko den CO₂b isurketa murrizpena adierazten du (tCO₂b)

Planaren denboraldian saihestutako emisioak: neurrien ezarpenagatik PAESaren denboraldian lortuko den CO₂b isurketa murrizpena adierazten du (tCO₂b).

Gastua: neurriaren betetzeerako burutu beharreko inbertsioa, bai publiko, zein pribatua.

Aurrezpen ekonomikoa: neurrien ezarpenagatik aurreztutako diru kopurua, erabiltzea eragozten den energiaren prezioaren arabera kalkulatu.

Berreskuratze tasa sinplea: kostua eta aurrezpena ekonomikoaren arteko erlazioa da, egindako inbertsioa nolab berreskuratuko den adierazten du.

Finantzaketa: neurri kostuaren arduradura hartzen duena. Erakunde, tokiko edo herritar administrazioa izan daiteke neurriaren ezarpeneko behar den inbertsioa egiten duena

Irudia 5: Tolosako EIEPeko ildo estrategikoak.



Jarraian azaltzen dira jorratuko diren ildo estrategiko bakoitzeko deskribapena.

Eraginkortasun energetikoa

Ildo estrategiko honen bidez, energiaren aurrezpena sustatuko da, energiaren ekoizpenari (bai energia elektrikoa, bai erregai fosilak) loturiko NEG isurpenak murriztuz. Kontsumoen murrizpenak eragina edukiko du ere kanpoko hornitzaileen menpekotasunean, hau murriztuz. Guzti hau aurrera eramateko teknologia berri eta eraginkorrak sustatuko dira, beti ere energia aurrezpenari lehentasuna emanez ohiturak aldatzeko egingo diren kanpaina ezberdinen bidez.

Energia berriztagarriak

Gaur egun menpekotasun handia dago kanpoko energia iturrietan, horrek efektu negatiboak dakar bai ingurumenen, bai ekonomian. Hori dela eta, ildo estrategiko honen funtsa ingurumen baliabidez ekoiztutako energiaren sustapena da. Energia mota hau erabiltzen duten teknologien sustapenak NEG isurpenen murrizketa suposatzen du, hala izanda Tolosak biomasa galdarak sustatuko ditu udal arloan eta eguzki plakak bizitegien.

Mugikortasuna

Garraioa da Tolosa udalerriko 2007 urteko CO₂b tona gehien isuri duen sektorea. Ibilgailuen funtzionamendurako erabilitako erregaien kontsumoek, gasolina eta gasolioa batez ere, izugarri emendatzen dituzte NEG isurpenak herrian, izan ere, kotxez egindako desplazamenduen kopurua garraio publikoaz egindakoak baino askoz handiagoa da. Hori dela eta, garraio publikoaren sustapena eta oinezkoen mugikortasunari zuzendutako neurriak izango dira ildo estrategiko honen oinarria, sensibilizazio kanpainen bidez lagunduta. Kotxe pribatuaren erabilera ezinbestekoa den kasuetan, ingurumenarekiko garbiagoak diren kotxeen erabilera bultzatuko da, baita ohiko kotxeak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko ikastaroak ere.

Ura

Udalerrian kontsumitzen den urak, etapa ezberdinak jasaten ditu kontsumo puntuetara heldu baino lehen, hala nola, adukzioa, prozesamendua eta banaketa. Urrats guzti hauek energi kontsumo bat dute, beraz NEG isurpenak suposatzen dituzte ere. Ondorioz, ur galerak eta xahuketak saihesteko neurriak ezarriko dira, ur hornidura sarearen berrikuntza, ur murrizgailuen instalazioa eta sentsibilizazio kanpainak esate baterako. Honetaz aparte, euri uraren ustiapena bultzatuko da Udal arloan.

Hondakinak

Gipuzkoako gaur egungo hondakinen kudeaketaren egoerak, gestioa aldatzea bultzatzen du. Hori dela eta, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra (2002-2016) sortzen da arazo honi erantzuna eman nahian eta kudeaketa mota ezberdinen konbinazioa aurkeztuz. Tolosan jorratuko diren ildo estrategikoen artean, hondakinena garrantzia handia hartzen du, zabortegira edota errausketara doazen hondakinen kopurua balio minimoetara murriztuz, gaikako bilketa sustatuz eta soilik beirarako edukiontzia mantenduz.

Inguru naturala

Baso guneak rol garrantzitsua dute klima aldaketan, oinarrizko karbono hustulekuak baitira. Tolosako udalerrian hainbat baso landaketak burutu izan dira jabego pribatua duten lursail desberdinetan, hazkuntza azkarreko espezieen landaketak nagusituz, *Pinus radiata* bezalako koniferoak batez ere.

Jarraian aukeratutako neurrien fitxak azaltzen dira. Neurri bakoitzari dagokion saila (Udaletxea, bizitegia eta zerbitzuak) eta jarraituko duen lerro estrategikoa adieraziko da.

8.1. Alorra: Udala

Eraginkortasun energetikoa

1. Neurria: Balasto elektronikoaren instalazioa Udaletxean, Musika Eskolan, Kultur etxean, Zerkausian, Polikiroldegian eta Liburutegian.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Balasto elektronikoaren instalazioa Udaletxean, Musika Eskolan, Kultur etxean, Zerkausian, Polikiroldegian eta Liburutegian.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Balasto elektronikoaren instalazioa.			
Neurriaren deskribapena Udaletxe, Musika Eskola, Kultur etxe, Zerkausi, Polikiroldegi eta Liburutegiko fluoreszenteetan, balasto elektronikoak instalatzea. Musika eskolan, balastoak jartzeaz gain, luminarien aldaketa ere proposatzen da.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan balasto elektronikoaren instalazioa aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Aldatutako potentzia eta kontsumitutako energia		Egutegia Dirulaguntzak urtero ematen dira	
Aurrezpen energetikoa	58.704 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	352.226 kWh	Kostua/ tCO₂	330 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	24,01 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	144,08 tCO ₂
Kostua	47.515 €	Aurrezpen ekonomikoa	7.045 €
Berreskuratze tasa sinplea	4 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

2. Neurria: Pizte eta itzaltze automatizazioa Udaletxean eta Kultur etxean.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Pizte eta itzaltze automatizazioa Udaletxean eta Kultur etxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Pizte eta itzaltze automatizazioa udaletxean eta kultur etxean.			
Neurriaren deskribapena Udaletxean eta kultur etxean, argiteriaren pizte eta itzaltzearen automatizazioa, beharrezkoak direna baino argi gehiago piztuta egon ez daitezen. Automatizazioa Udaletxean sentsoreen bidez eta kultur etxean erloju baten bidezkoa izango da.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan lanparen automatizazioa aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Instalatuko sentsore/erlojua eta kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	14.530 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	87.180 kWh	Kostua/ tCO₂	313 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	5,94 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	35,66 tCO ₂
Kostua	11.161 €	Aurrezpen ekonomikoa	1.593 €/urte
Berreskuratze tasa simplea	7 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

3. Neurria: Fluxu erregulatzaila instalatzea Udaletxeko kanpo argiterian.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Fluxu erregulatzaila instalatzea Udaletxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Udaletxean, fluxu erregulatzaila instalatzea.			
Neurriaren deskribapena Fluxu erregulatzaila instalatzea proposatzen da kanpo argiztapen lineatan, argi fluxuaren gutxiagotze bat eta energia aurrezpen bat lortuz gaueko orduetan.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntzarik aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan fluxu erregulatzailen instalazioa aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Fluxu erregulatzaila gain hartutako potentzia eta kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	18.162 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	108.972 kWh	Kostua/ tCO₂	307 €/tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	7,43 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	44,58 tCO ₂
Kostua	13.690 €	Aurrezpen ekonomikoa	2.507 €/urte
Berreskuratze tasa simplea	5 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

4. Neurria. Gainbegiratze energetiko Udaletxean.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Gainbegiratze energetiko Udaletxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	3
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Gainbegiratze energetikoa Udaletxean.			
Neurriaren deskribapena Udaletxeko energia elektrikoaren gainbegiratze jarraitua, kontsumo elektrikoa kontrolatuz, datuen monitorizazioaren baten bidez.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Arduraduna Tolosako Udala		Mota Dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Arduraduna Tolosako Udala	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan instalazioan gainbegiratzea aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Adierazlea Neurria bera eta kontsumo energetikoa			
Aurrezpen energetikoa	3.639 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	21.832 kWh	Kostua/ tCO₂	359 €/ tCO₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	1,49 tCO₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	8,93 tCO₂
Kostua	3.203 €	Aurrezpen ekonomikoa	437 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	5 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

5. Neurria: Presentzi detektoreen instalazioa Musika eskolan eta Polikiroldegian

NEURRIAREN IZENBURUA: Presentzi detektoreen instalazioa Musika eskolan eta Polikiroldegian	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 3
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
Helburua Presentzi detektoreen instalazioa Musika eskolan eta Polikiroldegian.	
Neurriaren deskribapena Musika Eskolako bainugeletan eta Polikiroldegiko aldageletan presentzi detektoreen instalazioa proposatzen da, argiztapenaren erabilera optimizatuz.	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan instalazioa aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Instalaturiko sentzore kopurua eta kontsumo energetikoa</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 21.067 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 126.400 kWh	Kostua/ tCO₂ 120 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 8,62 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 51,71 tCO ₂
Kostua 6.212 €	Aurrezpen ekonomikoa 2.827 €/urte
Berreskuratze tasa simplea 2 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

6. Neurria: Lanpara inkandeszenteak, kontsumo baxuko lanparengatik aldatu Kultur Etxean

NEURRIAREN IZENBURUA: Lanpara inkandeszenteak, kontsumo baxuko lanparengatik aldatu Kultur Etxean	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
<p>Helburua Lanpara inkandeszenteak, kontsumo baxuko lanparengatik aldatu Kultur Etxean. 28 lanpara aldatzea.</p> <p>Neurriaren deskribapena 28 lanpara inkandeszente lanpara fluorezente konpaktuengandik aldatuko dira. Lanpara inkandeszenteen bero eta energi galerak, fluorezente konpaktuen galerak baino handiagoak dira, beraz, fluorezente konpaktuek energia gutxiago behar dute argi fluxu bera emateko. Neurri hau aurrera eramateak, aurrezpen energetiko bat suposatuko du.</p>	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan argiztapenaren aldaketa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea</p> <p>Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 4.361 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 26.166 kWh	Kostua/ tCO₂ 42 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 1,78 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 10,70 tCO ₂
Kostua 448 €	Aurrezpen ekonomikoa 747 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea 1 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

7. Neurria: Argiteriaren itzaltze automatikoa kultur etxea itxita dagoenean.

NEURRIAREN IZENBURUA: Argiteriaren itzaltze automatikoa kultur etxea itxita dagoenean.	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 3
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
<p>Helburua Argiteriaren itzaltze automatikoa kultur etxea itxita dagoenean.</p> <p>Neurriaren deskribapena Kultur etxea itxita dagoenean, argiztapen piztuta geratzea ekidituko duen sistema instalatzea proposatzen da.</p>	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan erlojuaren instalazioa aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Itzaltze sistemaren instalazioa eta kontsumo energetikoa</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena</p> <p>EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 1.363 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 8.178 kWh	Kostua/ tCO₂ 179 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 0,56 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 1,67 tCO ₂
Kostua 300 €	Aurrezpen ekonomikoa 157 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea 2 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

8. Neurria: Igogailuko argiztapena erregulatu, erabilpenaren arabera Kultur etxean.

NEURRIAREN IZENBURUA: Igogailuko argiztapena erregulatu, erabilpenaren arabera Kultur etxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
<p>Helburua Igogailuko argiztapena erregulatu, erabilpenaren arabera Kultur etxean.</p> <p>Neurriaren deskribapena Igogailuko argiztapenaren itzaltzea proposatzen da igogailua geldi dagoenean, horrela, igogailuaren kontsumoa argiztapenean gutxiagotuz. Gaur egun, igogailuko argiztapena 24 ordu egunean piztuta dago. Neurri hau aurrera eramatean, igogailuko argiztapena guztiz beharrezkoa denean bakarrik egongo da piztuta.</p>	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan argiztapenaren erregulazioa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Argiztapenaren erregulazioa egitea</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea</p> <p>Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 552 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 3.312 kWh	Kostua/ tCO₂ 369 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 0,23 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 1,35 tCO ₂
Kostua 500 €	Aurrezpen ekonomikoa 95 €/urte
Berreskuratze tasa simplea 5 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

9. Neurria: Barne argiteria, argi naturalaren arabera erregulatuko duten sentsoreak instalatu Kultur etxean.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Barne argiteria, argi naturalaren arabera erregulatuko duten sentsoreak instalatu Kultur etxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Barne argiteria, argi naturalaren arabera erregulatuko duten sentsoreak instalatu Kultur etxean.			
Neurriaren deskribapena Kultur etxean, pintura sala eta pasiloetako argiztapenaren fluxua, kanpo argiaren arabera erregulatuko duen sentsoreetan oinarritutako sistema ezartzea.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala Arduraduna Tolosako Udala Beste plan batzuekin erlazioak Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan argiztapenaren erregulazioa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da. Adierazlea Instalazioak gain hartzen duen argiztapenaren potentzia (W) eta kontsumo energetikoa		Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak Mota Dirulaguntzak Arduraduna Tolosako Udala Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	1.363 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	8.178 kWh	Kostua/ tCO₂	90 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	0,56 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	3,35 tCO ₂
Kostua	300 €	Aurrezpen ekonomikoa	233 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	1 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

10. Neurria: Pultsadore tenporizatuen instalazioa polikiroldegi eta liburutegian.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Pultsadore tenporizatuen instalazioa liburutegian.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Pultsadore tenporizatuen instalazioa liburutegian.			
Neurriaren deskribapena liburutegian 5 pultsadore pultsadoreren instalazioa suposatuko da. Pultsadore honeen bitartez, argiztapena erabiltzaileak daudenean bakarrik piztuko da eta bere erabilera asko mugatuko da. Gaur egun, egun guztia piztuta egon daiteke argiztapen hau.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan pultsadoreen instalazioa egiitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Instalatutako pultsadoreak eta kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	5.989 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	35.934 kWh	Kostua/ tCO₂	81 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	2,45 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	14,70 tCO ₂
Kostua	600 €	Aurrezpen ekonomikoa	1036,0 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	2 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

11. Neurria: Polikiroldegiko ekipo elektrikoaren itzaltzea, erabilpenik ez dagoenean.

NEURRIAREN IZENBURUA: Polikiroldegiko ekipo elektrikoaren itzaltzea, erabilpenik ez dagoenean.	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
Helburua Polikiroldegiko ekipo elektrikoaren itzaltzea, erabilpenik ez dagoenean.	
Neurriaren deskribapena Polikiroldegiko ekipo elektrikoaren itzaltzea (lehorgailuak), erabilpenik ez dagoenean. Neurri hau aurrera eramateko, tenporizadoreen instalazioa suposatuko da. Era honetan, erabiltzaileak jarriko du lehorgailua martxan eta erabilera amaitzean itzali egingo dira.	
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala Arduraduna Tolosako Udala Beste plan batzuekin erlazioak Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan ekipoen itzaltzea egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da. Adierazlea Instalaturiko tenporizadoreak eta kontsumo energetikoa	Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena Mota Arduraduna Egutegia
Aurrezpen energetikoa 15.330 kWh	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 91.980 kWh	Kostua/ tCO₂ 391 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 6,27 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 37,63 tCO ₂
Kostua 14.700 €	Aurrezpen ekonomikoa 1.642 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea 9 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

12. Neurria: Udaletxean, berokuntza guneka erregulatzea.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Udaletxean, berokuntza guneka erregulatzea.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	3
NEURRI MOTA: Inbertsio bat ez lagundutako neurria			
Helburua Udaletxean, berokuntza guneka erregulatzea.			
Neurriaren deskribapena Neurriaren helburua, udaletxean berokuntza guneka erregulatzea da. Udaletxeko erradiadore bakoitzean, balbula bat instalatuko da eta balbula bakoitza termostato baten menpe egongo da. Termostatoak, gelako tenperatura neurtuko du eta horren arabera balbulak, ur beroaren fluxua erregulatuko du, gehiago edo gutxiago pasaraziz erradiadoretik eta kontsumoa eskarira doituz.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan erregulazioa aurrera eramatea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna	
Adierazlea Neurria ezartzea eta kontsumo energetikoa		Egutegia	
Aurrezpen energetikoa	40.234 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	241.404 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	406 €/ tCO₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	9,58 tCO₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	57,45 tCO₂
Kostua	23.304 €	Aurrezpen ekonomikoa	1.851 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	13 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

13. Neurria: Galdara aldatu Musika Eskolan.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Galdara aldatu musika eskolan.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Galdara aldatu musika eskolan.			
Neurriaren deskribapena Musika eskolako gaur egungo galdara, kondentsaziozko galdara bategatik aldatzea proposatzen da. Kondentsaziozko galdarek errendimendu handiago bat dute, beraz, aurrezpen energetikoa eta isurpenen gutxiagotzea ekarriko du. Horrela, galdararen errendimendua %70 izatefik %91izatera pasako da.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak EEE-ko dirulaguntzak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan instalazioaren galdara aldatzea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Galdararen aldaketa eta kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	44.958 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	269.748 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	351 €/ tCO₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	9,08 tCO₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	54,49 tCO₂
Kostua	19.115 €	Aurrezpen ekonomikoa	1.840 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	10 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

14. Neurria: Galdaren erregailua doitu Kultur etxean, Beotibar frontoian, Polikiroldegian eta liburutegian.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Galdaren erregailua doitu Musika Eskolan, Kultur etxean, Beotibar frontoian, Polikiroldegian eta Liburutegian.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Galdaren erregailua doitu Musika Eskolan, Kultur etxean, Beotibar frontoian, Polikiroldegian eta Liburutegian.			
Neurriaren deskribapena Kultur etxe, Beotibar frontoia, Polikiroldegia eta liburutegiko galdaren erregailuen doitzea proposatzen da, galdararen kontsumo termikoa jaisteko.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan instalazioaren galdaren erregailua doitzea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Doitutako erregailuak eta eraikinen kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	144.706 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	868.234 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	- €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	29,23 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	175,38 tCO ₂
Kostua	0 €	Aurrezpen ekonomikoa	4.956 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	0 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

15. Neurria: Berokuntza sistemaren sektorizazioa eta termostatoen instalazioa Kultur etxean.

NEURRIAREN IZENBURUA: Berokuntza sistemaren sektorizazioa eta termostatoen instalazioa Kultur etxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria	
<p>Helburua Berokuntza sistemaren sektorizazioa Kultur etxean.</p> <p>Neurriaren deskribapena Neurriaren helburua, kultur etxeko berokuntza sistemaren sektorizazioa solairuka egitea da. Solairu bakoitzean termostato bat jarri eta tenperatura solairu bakoitzeko mugatuz.</p>	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan sektorizazioa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Sektorizazioa egitea eta kontsumoaren kontrola eramatea</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 23.515 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 141.090 kWhPCS	Kostua/ tCO₂ 35 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 4,75 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 28,50 tCO ₂
Kostua 1.000 €	Aurrezpen ekonomikoa 1.066 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea 1 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

16. Neurria: Berogailu zaharrak, eraginkorragoak diren berriengatik aldatzea kultur etxean.

NEURRIAREN IZENBURUA: Berogailu zaharrak, eraginkorragoak diren berriengatik aldatzea kultur etxean.	
ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila: 4
NEURRI MOTA: Inbertsio bat ez lagundutako neurria	
<p>Helburua Berogailu zaharrak, eraginkorragoak diren berriengatik aldatzea kultur etxean.</p> <p>Neurriaren deskribapena Kultur etxeko berogailu zaharrak, berri eta eraginkor batzuegandik aldatzea. Guztira, aldatu daitezkeen 20 berogailu daude kultur etxean. Berogailu zaharrak, berriengatik aldatzeak, aurrezpen energetiko bat ekarriko du kontsumo fermikoan.</p>	
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan berogailu berriak instalatzea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Adierazlea Aldatutako berogailuak eta eraikinaren kontsumo energetikoa.</p>	<p>Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>
Aurrezpen energetikoa 1.568 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena 0 kWh
Saihestutako isurpenak 9.406 kWhPCS	Kostua/ tCO₂ 526 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak 0,32 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak 1,90 tCO ₂
Kostua 1.000 €	Aurrezpen ekonomikoa 61 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea 16 urte	Finantzaketa Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:	

17. Neurria: Termostato eta balbula termostatikoaren instalazioa Kultur etxea eta liburutegian.

NEURRIAREN IZENBURUA: Termostato eta balbula termostatikoaren instalazioa Kultur etxean eta liburutegian.			
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA: Udal eraikinak	Lehentasun maila:		2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
<p>Helburua Termostato eta balbula termostatikoaren instalazioa Kultur etxean eta liburutegian.</p> <p>Neurriaren deskribapena Kultur etxe eta liburutegian balbula termostatikoak instalatuko dira, gaur egungo balbula zaharkituak aldatuz. Neurri honi esker bi eraikinetan kontsumo termikoa %20ean murriztea aurreikusten da.</p>			
<p>Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Beste plan batzuekin erlazioak EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan termostato eta balbula termostatikoaren instalazioa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.</p> <p>Alderazlea Instalaturiko balbula kopurua eta kontsumo energetikoaren kontrola</p>		<p>Lotutako elementu sustatzailea Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak</p> <p>Mota Dirulaguntzak</p> <p>Arduraduna Tolosako Udala</p> <p>Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira</p>	
Aurrezpen energetikoa	23.540 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	141.241 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	49 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	4,76 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	28,53 tCO ₂
Kostua	1.400 €	Aurrezpen ekonomikoa	1.020 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	1 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

18. Neurria: Itxituren hobetzea Liburutegian.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Itxituren hobetzea Liburutegian.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	4
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Itxituren hobetzea Liburutegian.			
Neurriaren deskribapena Liburutegiko itxituren hobetzea. Gaur egungo liburutegiko itxiturak (leihook) zaharkituak daude eta leiho hauek energia termikoaren galerak ekarriko ditu, berokuntza kontsumoa igoaz. Itxituren hobetzeak, isolamendu hobeto bat ekarriko du eta kontsumo termikoaren jaitziera zuzen bat.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): denboraldi honetan itxituren aldaketa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Aldatutako leihoen azalera (m ²) eta kontsumo energetikoa		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	22.896 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	137.376 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	692 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	4,62 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	27,75 tCO ₂
Kostua	19.200 €	Aurrezpen ekonomikoa	868 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	22 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

19. Neurria: Beotibar frontoiko leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoitzekoak ipiniz eta inguruko arotzeria berrituz

NEURRIAREN IZENBURUA:		Beotibar frontoiko leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoitzekoak ipiniz eta inguruko arotzeria berrituz	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	4
NEURRI MOTA: Inbertsio bategi lagundutako neurria			
Helburua Beotibar frontoiko leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoitzekoak ipiniz eta inguruko arotzeria berrituz			
Neurriaren deskribapena Gaur egungo Beotibar frontoiko leihoen berrikuntza, leiho berriak instalatuz (kristal bikoitzekoak). Itxituren hobetzeak, isolamendu hobeko bat ekarriko du eta kontsumo termikoaren jaitziera zuzen bat.			
Eragile parte hartzailea/Xede -publikoa Tolosako Udala		Lotutako elementu sustatzailea	
Arduraduna Tolosako Udala		Deskribapena EEE-ko dirulaguntzak	
Beste plan batzuekin erlazioak		Mota Dirulaguntzak	
Egutegia eta maiztasuna Epe laburra (2008-2012): EIEParen lehen denboraldian ez da hobekuntza aurrera eramango. Epe ertaina (2013-2016): Denboraldi honetan leihoen berriketa egitea aurreikusten da. Epe luzea (2017-2020): Neurria burutua egongo da.		Arduraduna Tolosako Udala	
Adierazlea Aldatutako leihoen azalera (m ²)		Egutegia Dirulaguntzak urtero emango dira	
Aurrezpen energetikoa	7.479 kWhPCS	Energia berriztagarrien ekoizpena	0 kWh
Saihestutako isurpenak	44.874 kWhPCS	Kostua/ tCO₂	662 €/ tCO ₂
2020 urtean saihestutako isurpenak	1,51 tCO ₂	Planaren denboraldian saihestutako isurpenak	9,06 tCO ₂
Kostua	6.000 €	Aurrezpen ekonomikoa	706 €/urte
Berreskuratze tasa sinplea	8 urte	Finantzaketa	Udal aurrekontuak
Beste batzuk/Grafikoak/Oharrak:			

20. Neurria: Beotibar frontoian, termostato baten instalazioa berokuntza erregulatzeko.

NEURRIAREN IZENBURUA:		Beotibar frontoian, termostato baten instalazioa berokuntza erregulatzeko.	
ILDO ESTRATEGIKOA:		ENERGIA ERAGINKORTASUNA	
ALORRA:	Udal eraikinak	Lehentasun maila:	2
NEURRI MOTA: Inbertsio batez lagundutako neurria			
Helburua Beotibar frontoian, termostato baten instalazioa berokuntza erregulatzeko.			
